

GUaiXE.eus



Ezkurdia, buruz burukoan, gaur lanera



Kirola >> 12

Tanzaniako eskola bat laguntzera bideratuko da Irurtzunen igande goizean eta eguerdian egingen den bigarren eskuko azoka



Sakana >> 6



Memoria historikoa jaso, aitortu eta erreparatzea

Uharten sortu den taldearen helburuak

>> 9

Arratibel aske, fiskalarekin akordioa lortu ondoren

>> 10

Nafarroako VI. Akordeoilari Eguna, Altsasun

>> 15



Altsasun euskalkia helburu

>> 7

Sakanako Hezkuntza Mahaia sortu da, ibarra gelara sartzeko

>> 5

Benignoren omenezko auzolan-omenaldia hartuko du Urdiainek

>> 16



Arbizuko VII. lore azoka igandean izanen da

>> 6



«Paxkalin», Suarezzen haur literaturako azkena

>> 15



«Sakana maitia» ikuskizuna asteburuan mustuko da

>> 15



Etxarri emakumezko txirrindulari onenen topaleku

>> 11

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Nahia ZORIONAK!!
Nahia 10 urte ya,muxu asko familiaren partez.



Unax Goñi Jauregi ZORIONAK Unax!!!
Jada 5 urte bete egunean. Muxu handi bat aita ama Maren eta familia osoaren partez.



Unax Goñi Jauregi ZORIONAK Unax!!!
Etxeberritik maitasunez, amonak oso egun zoragarria izatea opa dizu. Mutiko bat zara, 5 urte!! Muxu handi bat eta asko jolastu pilota urdinarekin.



Itsaso Aldaz Herrero ZORIONAK gure etxeko printzesari!!
Muxu handi bat Urdiaingo familiaren partez.



apiribilak

15-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Gitarra elektriko ikasleen eta konboen entzunaldia. Apirilaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. **Irurtzungo musika eskola.**

Alicate, la gramola del amor. Apirilaren 15ean, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

Dentera, Garabatos eta Txino Kudeiro. Apirilaren 16an, larunbatean, 22:30ean Urdaingo plazan.

Sofokaos, Ahuntzape, El sonido de la metralla eta Skabidean. Apirilaren 16an, larunbatean, 23:00etan Lakuntzako Biltoki gazte elkartearen.

Infernuko Hauspoa jaialdia. Apirilaren 17an, domekan, 17:30ean Altsasuko Burunda frontoian.

Antzerkia

Maravilla en el pais de las miserias. Apirilaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Atikus teatro.**

La discreta enamorada. De Lope de Vega. Apirilaren 16an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **El Bucle.**

Dokumentalak

Sakana maitia. Apirilaren 15ean, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean eta apirilaren 17an, igandean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Zinema

La ley del mercado. Apirilaren 15ean, ostiralean, 21:45ean eta apirilaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Tenemos que hablar. Apirilaren 15ean, ostiralean, 22:00etan eta apirilaren 17an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Cien años de perdón. Apirilaren 21ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Olatzagutia-Arantzazu. Apirilaren 17an, igandean, 7:00etan Olatzagutiatik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Lekunberri-Altsasu. Apirilaren 16an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 90 km. **Zikloturista taldea.**

Ordoz-Eulate-Ibiso. Apirilaren 17an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanporean. 50 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Eszenaratzea eta ukituak ematea. Apirilaren 18a arte, astegunetan

18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Joan etorriko bidaiak. Apirilaren 20tik maiatzaren 8ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Txeko Artea Tailerra.**

Hitzaldiak

La república entre ayer y hoy. Apirilaren 15ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlariak: Javier Drontra historialaria eta Joseba Eceolaza memoria historikoko militantea.**

Bertsolaritza

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Apirilaren 15ean, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Itsasi euskaltegian.

Tailerrak

Lishi ikastaro taoista. Apirilaren 16an eta 17an, larunbatean eta domekan, 9:30etik 12:30era eta 13:30etik 15:30era Altsasuko Otadiko Kristo Deuna aterpetxean. **Amezitia fisioterapia, Alex Boyd.**

Sukaldaritza. Apirilaren 16an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Azokak

Bigarren eskuko azoka. Apirilaren 17an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzungo foru plazan. **Itxipuru.**

Lore eta landare azoka. Apirilaren 17an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Arbizuko plazan.

Bestelakoak

Benignoren omenezko auzolan erraldoia. Apirilaren 18an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Urdaianen.

Argazki lehiaketaren sari banaketa. Apirilaren 18an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Nafarroako Akordioilarien IV. Eguna. Apirilaren 17an, domekan, 12:00etatik aurrera Altsasun.

Conecta 4 jolasa. Apirilaren 17an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Astehenen Zoriontsuak. Apirilaren 18an, astelehenean, 19:30ean Hiriberriko Txitera elkartearen.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Apirilaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

SAKANA

Liburuaren eguna



Ipuin kontalaria Ziordian.

nen da. *Munduan zehar... entzun nuen* izenburuko kontakizuna eskainiko du Jakin ipuin kontalaria, ostegunetan, 17:30ean.

Altsasu

Udal liburutegia prest dago liburuaren eguna ospatzeko eta horretarako hiru saio prestatu ditu lortia Kultur Gunean. *Estolda jolasak* Jon Arretxeren azken eleberrierekin topaketa antolatu dute, astelehenerako, 19:00etan. Manolita Thunders-ek gidatutako Ipuinak eta jolasak haurrendako tailerra, asteartean, 17:30ean izanen da eta Castillo Suarez idazle altsasuarraren Paxkalin liburu berriaren tailer aurkezpena ostiralean, 19:00etan izanen da.

Olatzagutia

Liburuaren eguna dela eta Olatzagutian bi ekitaldi antolatu dituzte. Bata irakurle taldeak antolatu duena da. Alan Bennetten *Una lectora común* liburuaren hizpide izanen duen literatur topaketa da. Gaur, 21:00etan, liburutegian. Bestea, Izaskun Mujika ipuin kontalaria saioa izanen da. *Ibili alai ipuinetan blai* kontakizuna ostegunetan eskainiko du, 17:00etan, liburutegian hori ere.


Ziordia

Literaturarako bidea. Horixe da, besteak beste, udal liburutegia. Eta larunbatean Liburuaren Eguna dela eta bi jardura antolatu ditu. Kamishibai teknikarekin ipuin kontaketa izanen da gaur, 18:30ean. Bihar, berri, antzerkiaren txanda izanen da. Patata tropikala antzerki taldeak *Ezer ez da dirudiena* antzezlan eskainiko du, 18:30ean, liburutegian.

Etxarri Aranatz

Victoriano Huizi liburutegia Liburu eguneko topalekua izanen da eta bi ekitaldi hartuko ditu. Lehen, *Nuestro pueblo despertará, David Jaime y la República Vasconavarra* Jose Mari Esparzaren

liburuaren aurkezpena izanen da, asteazkenean, 19:00etan. Liburuak David Jaime Dean errepublikazale etxarriarraren berri ematen du. Bigarrena ekitaldia 3 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago: ipuin kontalaria baten saioa iza-



APIRILAK 17
LORE ETA LANDARE
AZOKA ARBIZUN

2016

Gure konpromisoarekin, pieza guztiak bere tokian

2015eko Errentaren eta Ondarearen Aitorpena. 2016ko apirilaren 20tik ekainaren 24ra
(eta internet bidez apirilaren 7tik aitzina)

* Campus Arrosadia (Pamplona-Iruña).
Universidad Pública de Navarra / Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Aitorpen proposamenen kontsulta: apirilaren 7tik (osteguna)
aitzina navarra.es atarian eta **948 50 51 52** telefonoan

Ogasuneko bulegoetan aldez aurretiko hitzordua eskatzea: apirilaren 18tik
aitzina navarra.es atarian nahiz **948 50 55 05** eta **948 50 55 06** telefonoetan

Erakunde laguntzaileetan aitorpenak aurkeztea: apirilaren 20tik (asteazkena) aitzina



Oihane Andueza Imirizaldu

astekoa

Etxea, isla bizia

“Bizi al gaitzke gizarte gaixo honetan (ezmoral, ustela eta gainontzekoak...) gure buruarrekiko zintotasuna osotara galdu gabe?” galderarekin hasten du Jiddu Krishnamurtik “*Cómo curar el monstruo*” bide-

oa.

“Noski!” darrai, “orduan galdetu beharko diozu zure buruari, zer da gizarte? Gizarte nigandik bereizirik al dago? Ala ni naiz gizarte? Ni naiz gizarte, nik ere sortu dut iza-

ki itsusi hori, eta horren parte naiz. Gizarte ez dago nigandik urrun, aparte. Beraz, gakoa ez dago kanpoko ingurua aldatzean (gizarte egiturak eta joko politikoak). Lehenik eta behin nire etxea antolatuko dut, txu-

kun jarri, sakonki. Nire etxea. Orduan kanpoan ere ordena egongo da. Zuk, nik eta entzule guztiek gure etxea antolatzen badugu, gizarte berri bat sortuko dugu!”

Erraz esaten da, etxea mikro-

gizarte gisa hartzea. Hau azken muturreko koherentziara eramatea, aldiz, lan fina dela deritzot, ez baitigute inon irakatsi kristalak bezain garden eta garbi pertsonen arteko harremanei distira ateratzen.

barrutik kanpora

Elkarlaneko ekonomia

Azkeneko artikuluan “Crowdfunding” terminoarekin ezagutzen den finantziario ereduaz hitz egin genizuen. Oraingo honetan, Elkarlaneko Ekonomia edota Ekonomia Kolaboratiboarekin gatzoz.

Crowdfundinga elkarlaneko ekonomia dela esan dezakegu, kasu honetan, finantziarioa lortzerakoan. Aldiz, elkarlaneko ekonomia haratago doa. Azken urtetan milaka dira produktu eta zerbitzuak elkarbanatzeko sortu

diren plataformak elektronikoak. Hauek abiadura bizian zabaltzen ari dira merkatuak eskatzen dituen erronka berriei erantzuteko enpresa tradizionalak baino prestatuago daudelako.

Miguel Angel Garcia Vegak El Pais egunkarian idatzitako artikulua bati erreparatu gero, “elkarlaneko ekonomiak mundua aldatu nahi duela dio”. Eta gaineratzen du “teknologia berrietara besarkatzen den iraultza bat planteatzen ari dela”. Mas-

sachusetts Institute of Technology (MIT) 110.000 milioi dolarreko (82.000 milioi euro) potentzialtasuna kalkulatu dio. Gaur egun, 26.000 milioi inguruko da. Eta sistema honetan, ondasun eta objektuak elkar trukatu eta konpartitzen dituzten pertsonak, plataforma elektronikoaren bidez, 3.500 milioi dolar baino gehiago (2.580 milioi euro) poltsikorazten dituztela dio Forbes aldizkariak.

Plataforma elektroniko hauen artean oso enpresa famatuak dau-

de. Asko ezagunak egingo zaizkigu, beste batzuk agian ez! Ziur, azkar Sakanan izango ditugula. Adibidez:

Blablacar, bidaiari eta gidariak konektatzen duen plataforma da.

Uber, bidaiariak eta gidariak konektatzen ditu garraio sare pribatu baten bitartez. Comprea, supermerkatuko eta produktu freskoen erosketarako ordu batean zure etxean.

Relendo, herri edota hiri berean

bizi diren pertsonen arteko produktuen alokairurako plataforma.

Wallapop, erabiltzen ez dituzun objektuekin dirua irabazteko zein aukerak aurkitzeko plataforma da.

Airbnb, etxebizitzak publikatu, aurkitu eta erreserbatzeko kolaborazio merkatua da.

Ondo izan.

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Pobrezia ere heredatua?

Caritasek argitaratu berri den FOESSA txostenak baietz erantzuten dio izenburuko galderari.

Eta zein diren horretan eragina daukaten faktoreak?

Ikasketa maila, lan egoera, lana bera, eta diru-sarrerak omen dira heredatu edo jaraunsi horren errudun nagusiak.

Ikerketa hau egin dutenek belaualdi arteko transmisioa deritzote fenomeno honi eta haurtzarora pobrezian dagoen familia batean pasatu dutenek heldutasunera ailegatzean egoera hori aldatzeko dituzten zailtasunean datza.

Estatu espainolean azpiegitura sozialak onartzen du pobrezia egoera jaraungarri izatea eta izan ere jaraunstea. Horren leku-

ko dira orain dela 30 urte Gizarte Zerbitzuetan eta GKEetan erabiltzaileak izan diren ilobak erabiltzen ari direla gaur egun ere.

Hezkuntza

Ikerketak baieztatu du Bigarren Hezkuntza bukatzea lortu ez dutenen 10etik 8k dauzkatela Lehengo Hezkuntza bukatu ez zuten gurasoak.

Lan egoera eta lan klasea

Bi faktore hauek ikasketa mailarekin erlazionaturik egoteaz gain egoera ekonomikoarekin zerikusi handia dute. Lan status hau da guraso eta seme-alaben arteko transmisioaren faktore argia.

Diru sarrerak

Ikerketak azalerratu du zailtasun

ekonomikoaren eta lortutako ikasketen mailaren arteko harreman estua ere. Arazo ekonomikoak gutxitzen diren heinean ikasketen maila handitzen hasten da proportzionalki helduengan.

Haurtzarora eta gaztarora familian arazo ekonomikoak izan zituzten artean %80 heldutasunera iristean errepikatzen dira.

Ikerketa honen ondorio nagusia da **oraingo pobrezia geroko pobrezia sortarazten duela**.

Katea hausteko proposamen batzuk

Ikerketak beste batzuen artean egoerari aurre egiteko proposamen hauek luzatzen ditu

1. Hezkuntzan inbertitzea.
2. Gizarte Zerbitzu Komunita-

rioetan indarra jartzea Arreta psikoedukatio familia eta baita aisialdiko ekintzetan ere.

3. Osasun publiko eta unibertsala ziurtatzea.

4. Politika sozial eta birbanatzaileak bultzatzea.

5. Egoera ahulak transmititzea ekidinduz luketen etxebizitza eta hirigintza politikak bultzatzea.

6. Familiei laguntza zuzena gurasoendako orientazio zerbitzuak sortzea haurren garapenerako inguru seguruko lortzeko.

Gizarte Zerbitzuak

gutunak

Argia mozalik gabe

Guaixe fundazioko langileak

Argia aldizkariako Axier Lopez kazetariari 601 euroko isuna jarri dio Espainiako Gobernuak. Gazte baten atxiloketa uneko argazkiak Twitter bidez “baimenik gabe” zabaltzeagatik jarri diote isuna, “Mozal Legea” aplikatuz “arau hauste larria” egin omen duelako. Horren aurrean Guaixefundazioko langileok erabateko elkartasuna adierazi nahi dugu bai Lopez bai Argia astekariari ere. Aldi berean, informazio eskubidea mugatzen duen eta informatzea “delitu” bihurtzen dituen “Mozal Legea” indar gabe uztea beharrezko jotzen dugu.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Felix Altzelai

ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

BILTOKI EGUNA: Lakuntzako gazte egoitzak bere eguna ospatuko du bihar. Gazteak bazkaltzera elkartuko dira 15:00etan. Ondoren haien arteko jolasen txanda izanen da, 19:00etan gurdi poteoari ekiteko. 23:00etan kontzertuen txanda izanen da. Jaibus: 3:00etan, 5:00etan eta 7:00etan.

nen da, 19:00etan gurdi poteoari ekiteko. 23:00etan kontzertuen txanda izanen da. Jaibus: 3:00etan, 5:00etan eta 7:00etan.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanako Hezkuntza Mahaia sortu da

Ibarreko gaiak ikastetxeetara eramateko materialak sortzea eta hezkuntzan sortzen diren asmoak eta ildoak jorraztea da bere egitekoa

Uharte Arakilen egindako bileran eratu zen Sakanako Hezkuntza Mahaia (SHM) joan den ostegunean. Lantalde horren sorreran parte hartu dute, besteak beste, Sakanako Garapen Agentziak, Ezpilleta elkarteak, Enneko Aritza fundazioak, Belardi baserriarren elkarteak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Magisteritzako bi irakaslek eta hainbat ikastetxeetako irakasleak. Mahaia eratzea-ekin batera elkarrekin harremanetan nola jarri eta elkarri nola lagundu zehaztu zuten aurreneko

bilera horretan.

Sakanako Plan Estrategikoa eta ibarreko hezkuntza arloko interesak eta beharrak aztertuta, ikastetxeetan Sakanari balioa emateko beharra sumatzen zen. Horregatik, zenbait jarduera martxan jarri ziren, esaterako, udazkenean irakasleei zuzenduta Irakasleen Laguntza Zentroak, Ezpilletak eta Garapen Agentziak antolatutako ikastaroa. Halakoe-tan, sakontzeko beharra sumatzen zutelako sortu da Sakanako Hezkuntza Mahaia.

Bere egitekoak ibarreko gaiak ikastetxeetara gerturatzen laguntzeko beharrezko materialak sortzea eta hezkuntza mailan sortzen

Interesa dutenendako

Lan-taldean interesa duen edozeinek parte hartu dezake, harremanetarako sakanakoherrieskolak@gmail.com helbidera mezua bidali edo ikastetxeetan galde-tu dezake.

diren hainbat asmo eta ildo jorrazten jarraitzea da. Hasteko, lantaldeko kideak hainbat gairi buruz dagoen materiala biltzen hasiko dira: mitologia, etnologia, natura-ondarea eta arte-ondarea. Egiteko horretan Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gradu Akabera-ko lau ikasleren laguntza izanen



Uharte Arakilen egin zuten aurreneko bilera. UTZITAKOIA

da. Haiei gaiak proposatzen, informazioa bilatzen, eskoletan kontrastatzen lagunduko diete, ahal den

heinean, sakandarrek. Sortutako materialak argitaratu eta jendearen eskura uzteko asmoa dute.

SAKANA



Kultur etxea aurkezpeneko bete.

Eskolen festarako soinu deia

Apirilaren 24an Irurtzunen izanen den Sakanako D eredu-ko eskola publikoaren festarako kartela, kanta eta bideo-klipa aurkeztu zituzten ostiralean. Irurtzungo kultur etxea bete egin zen. Dantzarako doinu itsas-korak dituen *Sakana herri eskolekin* sortzen kantua 11 aldiz taldeak egin du eta 24ko festan parte hartzera deitzen du. Dagoeneko 2.700 aldiz ikusi da bideoa sarean. Hartan Atakondoa ikastetxe publiko-ko eskola komunitate guztiak parte hartu du.

Olatzagutia

Udalak 1,91 milioi euroko aurrekontua du

Olatzagutiako Udalak 1.916.370 euroko aurrekontua izanen du aurten, joan den urtean baino % 0,57 txikiagoa. Hala onartu zuen udalbatzak ostegunean. Zerbitzuak mantendu eta lanpostuak sortzeko irizpideak izan dituzte kontuan aurrekontua egiterakoan. Gurutze Rodriguez alkateak esan digenez. Kopuru horren barruan musika eskola (36.400 euro) eta Erburua Olazti enpresa publikoa daude (175.400 euro). Azken horretara, udalak aurten 120.000 euro bideratzea aurreikusitako da.

Langabezian dauden sei pertsona kontratatuko ditu Olatzagutiako Udalak: obra eta zerbitzuetako brigada indartzeko hiru peoi, herriko kaleetan hainbat lan egiteko igeltsero eta eraikuntza alorreko ofizial eta peoi bana eta bukatzeko, basolanetan aritzeko peoi bat. Kontratazio horiek Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin finantzatu dira. Horietaz aparte, Udan Euskaraz kanpainarako eta igerilekuak kudeatzeko kontratazioak



Udazkenean egindako arranja.

ere aurreikusitako ditu udalak.

Inbertsioak

Olatzagutiako Udalak inbertsioetara 210.090 euro bideratuko ditu. Haietatik 194.090 bere poltsatik aterako dira eta gainontzeko 16.000 euroak Nafarroako Gobernuak basolanetarako emandako diru-laguntzatik. Kaleetan dauden arkitektura-oztopoak kentzeko lanen 4. fasea eginen da aurten. Halako ozto-

poak eskola publikotik kentzen bukatuko dute. Horretarako, aulki igogailu bat jarriko du udalak eta patiotik areto-futbol-pistarako bidea egokituko dute. Gazte txokoa egiteko eskatuz guraso talde batek sinadura bilketa egin zuela eta udalean dauden aukerak aztertuko dituztela azaldu digu alkateak.

Aurrekontuan, berritasun moduan, memoria historikoa berreskuratzeko jardueretarako

kontu-sail bat onartu da (3.500). Rodriguezek aurreratu du gai horren inguruan ekitaldiaren bat izanen dela. Udala, bestalde, Enneko, haritzaren memoria egitasmorako laguntza emanen du. Alkateak, azkenik, jakinarazi digu joan den urteko azken hilabeteetan udalak bere hornitzaileei, batez beste, 19 eguneko epean ordaindu zuela. Legeak administrazioei 30 eguneko epea ezartzen die.

www.olazti.com

Web orrian aurrekontua kontsultatu daiteke.

Inbertsioak

Festak	5.000
Baso lanak	65.000
Kale konponketak	60.000
Kultur jarduerak	45.000
Makineria eta tresneria berria	30.000
Argiteria publikoa	31.000
Kirol jardueren laguntza	17.000
Harrobietako leherketen neurketa	15.000
Bideak berritzea	10.000
Hobekuntzak eskolan	10.000
Hobekuntzak kultur etxean	10.000
Hobekuntzak udaletxean	10.000
Liburutegirako funtsak	3.000

kaxeta
liburudenda / paperdenda
Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

PORTUKO okindegia

PORTUKO OKINDEGIA

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Etixerako aseguroak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

Konfiantzazko aseguratora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

% 25^{eko} DESKONTUA

» SAKANA / Altsasu

Parkinsonaz azokan

Nafarroako Parkinson Elkarteak, Anasparrek, gaitz horren eta erakundearen beraren berri eman zuen Altsasuko azokan herenegun. Aurreko ostirala Parkinsonaren Nazioarteko Eguna zela eta atera ziren azokara elkarteak. Kontxi Mendiluzek azaldu zigunez, asko izan ziren elkartearen aldeko ekarpena egin zutenak, gutxiago Parkinsonari buruzko informazioa informazioa eskatu zutenak.

Sakanan Parkinsona duten pertsonen taldea sortzeko adina gaixo daudela azaldu zigun Mendiluzek, baina baita jendea elkar-

tean izena emanda ez dagoela ere. Horregatik, terapiak Iruñean egin behar izaten dituzte. Han hobe mugitzeko fisioterapia, hobe hitz egiten laguntzeko logopedia, babes psikologikoa jaso, eskulanak egin, abesbatza, eta beste hainbat jardura dituzte. Mendiluzek azaldu zigunez, "elkartea oso garrantzitsua da jendearendako han elkartzen garenak arazo berak ditugu eta elkar ulertzen dugu. Elkartean ez dugu gaixo-girorik ezta giro tristerik ere. Giro alai eta ludikoa da". Anasparrek aurtan 25 urte bete ditu.



Anaspar elkarteko kideak azokan informazioa zabaldu zuten.

» Irurtzun / Lakuntza

Udalek Ennecorekin bat egin dute

Irurtzongo eta Lakuntzako udalek Nafarroa Bizirik fundazioarekin lan-kidetza hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren bitartez legealdi osoan Enneco, haritzaren memoria proiektuarekin kolaboratzeko konpromisoa hartu dute.

» SAKANA

Parlamentuak autopista doakoa izatea eskatu du

Nafarroako Parlamentuak ebazpena onartu zuen aurreko osteguneko zinearen bidez Nafarroako Gobernuari premiaz AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan. PPK aurkeztutako mozioa Erriberako herritarrek zituen gogoa, zioen azalpenean "osasu, lan edo zerbitzu" arazoak aipatu zituen AP-15 autobidearen doakotasuna eskatzeko, Erriberaren eta Iruñearen arteko bide azkarrena AP-15 delako. Gobernuari eusten dioten lau indarrek ordezkotako mozioa aurkeztu zuten baina PPK ez zuen onartu. EH Bildu, Ahal Dugu, PSN, PPN eta I-Eren baiezko botoekin eta UPN eta Geroa Baien ezezko botoekin onetsi zen ebazpena.

» Irurtzun

Tanzaniako eskola baten aldeko bigarren eskuko azoka

Plazan izanen da, 10:00etatik 14:00etara. Azokaz aparte, jatekoak, umeendako jolasak, zuzeneko musika eta beste izanen dira

Arropa, liburuak, DVDak, CDak, etxe-tresna elektrikoak eta bestelakoak eskuratzeko aukera izanen da azokan. Itxipuru taldea 30 aldiz atera da plazara bigarren eskuko "traste zaharrak" saltzera. "Denok daukagu erabiltzen eta baliagarriak ez zaizkigun mordo bat gauza, beste batzuei ongi etorri ahal zaizkienak. Gure helburua, material horri guztia iriteera egoki bat ematea da, bizi garen gizarte kontsumista honek ezartzen duen "erabili eta bota" jarrerari ikuspegi kritikoa emanez".

Helburu horrekin sortu zen azoka eta hala segitzen du. Gainera, lortutako irabaziak elkartasun proiektu bat laguntzera



Maddi Urria Albizuk Tanzanian ezagutu zuen eskola lagunduko da igandean.

bideratzen du. Larunbatean izan zen elkartasun afarian proposa-zaileak, Maddi Urria Albizuk, egitasmoa 43 lagunaren aurrean aurkeztu zuen: Tanzaniako Newlands-eko komunitatean nahikoa diru baliabiderik ez duten haurrei hezkuntza aproposa eskaintzen ahalegintzen da.

Tanzania

Urrak berak 2014eko agorrila han eman zuen, laguntzen. Azaldu digunez, "Tanzanian teoriarik hezkuntza doakoa da. Baina familia bakoitzari haur baten eskolatzea 35-40 euro kostatzen zaio. Kontuan izanik famili askok asteen euro bakarrek diru sarrera dutela,

haiendako ezinezkoa da haurrak eskolara bidaltzea". Born to Learn erakundeak komunitatean baldintzarik okerrenetan dauden haurrak zein diren identifikatu eta haien eskolara joateko aukera eskaintzen die. Bestalde, familien diru sarrerak handitzeko emakumei zuzendutako eskulangintza tailerrak ere antolatzen dituzte.

Bere egonaldi galdetuta, Urrak esan digu bi egiteko izan zituena. Batetik, haurrei swaghili, musika, matematika eta bestelako gaietako etxeko lanak egiten lagundu zien. Bestetik, plastikozko botilak harez betetzen aritu zen. Horiek adreilu gisa erabili dituzte eskola berria eraikitzeko. Izan ere, orain arte alokatutako eraikin batean egon dira. Igandeko bigarren eskuko azokan ateratako diruarekin eskola horren proiektua lagunduko da.

» Altsasu



Zikoina bisitan

Ostiralean eta larunbatean jakinmina piztu zuen bisitaria izan zen Altsasun: zikoina bat. Telefono mugikorrendako antena baten gainean ezarri zen eta ibiltarien begiradak bereganatu zituen ezohiko bisitariak. Gure lurralde ekologistatik jakinarazi digutenez, "gaur egun oraindik ugaltzen ari ez diren zikoina kopuru handia dago. Batetik bestera ibiltzen dira, elikatu beste beharrik ez baitute. Horregatik, edozein tokitan ikusteko aukera dago". Gure lurrek Nafarroan 946 zikoina bikote zentsatu ditu aurtan.

» Etxarri Aranatz

Borroka bategatik lau gazte atxilotuta

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Foruzaingoak 20 eta 26 urte arteko lau gazte etxarri atxilotu ditu. Iturri beraren arabera, apirilaren 3an, igande goizaldean, herriko taberna batean izan zen borroka batekin zerikusia lukete atxilotutakoak. 24 urteko iruindarra kolpatu omen zuten eta aurpegian zituen zenbait hausturengatik Iruñeko ospitale gunean artatu zuten.

+www.guaixe.eus

» Arbizu

Lore azoka, herria dotoretzeko



Arbizuko plaza kolorez jantziko da.

Igandean, 10:00etatik 14:00etara, Arbizuko plazan. Eguraldiak lagunduko ez balu kiroldegian eginen litzateke azoka

Arbizuko Udalak, antolatuta, lore eta landare azoka izanen da etzi. Dozena erdi bat postuk loreak eta landareak salduko dituzte: Goiko Lorezaintza (Altsasu), Migel Angel (Lakuntza), Urtinea (Usurbil), Juan Carlos Olarte sendabelarrak, Ines (Zurlan, Lasarte) eta Ana eta

Xandra (Arizkuren). Haiekin batera artisauen eta eskulangileren beste dozena erdi postu izanen dira igandean. Haietan zura, ezti, bitxiak, pilotak, lore lehorrekin egindako apaingarriak eta beste izanen dira salgai.

Lore eta landare azoka antolatzen 2010ean hasi zen Arbizuko Udala, aurtengoa, beraz, zazpigarrena da. Etxerako, baratzerako edo

Liburutegia azokan

Liburuaren Eguna bertan denez, Arbizukoudal liburutegia azokan izanen da, zerbitzua ezagutzera emateko. Gainera, liburutegiak liburu-azoka txiki bat izanen da. Katalunian liburuaren egunean liburu eta arrosa bana ohitura den moduan, Arbizun landarea edo lorea eta liburu oparitzea bihurtu daiteke ohitura.

lorategietarako landare eta loreak eskuratzeari batera, Sakanako Mankomunitatearen konposta banatuko da etzi. Azokaz harago, lore, landare eta baratzen gaiari segida emateko, udalak Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu du. Apirilaren 26an izanen da, 18:00etan, jubilatuen elkartean.

» Arakil / Irurtzun

Lehen Astelehen Zoriontsua

Astelehenean, 19:30ean, Hiriberriko Txitera elkartean bat egin eta Josemiel Bidadorri buruzko pastoralara ikusi eta haren inguruan iritziak trukatuko dituzte

Testuen eta ikus-entzunezkoen inguruan iritziak partekatu eta euskaraz hitz egiteko sortu berri den taldea da Astelehen Zoriontsuak. 10 bat pertsona osatzen dute, nahi duenak ateak zabalik ditu, eta irakurritako testuen (artikuluak, erreportajeak, liburuak) edo ikusitako ikus-entzunezkoen (telebista saiok, filmak, sareetako bideoak) gainean taldekideek dituzten iritziak partekatzeko gune bat izan nahi du: "irakurritakoa eta ikusitakoa norberaren barruan gelditu beharrean, taldera ateratzea eta besteen iritziak entzutea da egin nahi duguna". Estreinakoz astelehenean elkartuko dira eta interesa duten guztiak gonbidatuta daude.

» Altsasu

Euskalkia helburu

Altsasuko euskalkia berreskuratzeko ahalegina zertan den jakin nahian 140 bat pertsona elkartu ziren Iortia kultur-gunean joan zen ostiralean. Gehienak gazteak baziren ere, haiekin batera helduagokak, institutuko eta ikastolako irakasleak eta urdindarrak zeuden. Deitzaileetako batek, June Bengoetxea, esan digunez, erantzunarekin "oooso pozik" daude.

"Altsasuko gazte pila bat herriko euskalkia ikasi nahian zeudela jakin genuen duela hilabete batzuk. Biltzen hasi ginen, eta pixkanaka, prozesu hau nola egin pentsatzen hasi ginen". Aurreneko egitekoa soziolinguistikoki kokatzea zela pentsatu zuten. Horregatik iragarri zuten Koldo Zuazoren hitzaldia joan zen ostiralerako. "Abiapuntua emateko. Berak Burundako euskalkia iker-tu du. Materiala bagenuen". Euskalkietan adituak ezin izan zuten etorri. "Hala ere, aprobetxatu genuen jendeari kontatzeko zertan genbiltzan eta nora gindoazen". Egitasmoa saretzen hasteko kontaktua jaso zituzten. Ideiak ere sortu ziren.

Aurrera begira

Gazteen euskalkiarekiko kezka azalduta, Bengoetxeak bere ustea azaldu digu: "Altsasuk euskalkirik ez izatean gure artean hitz egiteko, askotan, kale-hizkera edo euskara errazago bat falta zaigu. Gainera, Altsasun euskara ez denez asko erabiltzen zailagoa da hizkera hori sortzea. Nik uste identitate hori guztiz formatzeko gogoia zutela, euskalkia erabiltzen hasteko eta erraztasun pixka bat izateko ere. Orduan haiekin lanean hasi ginen".

Deialdiak izan zuten erantzunaz bere ustea eman digu Bengoetxeak: "batzuk Koldo etorriko ez zela berandu enteratu baziren ere, jendeak hori zer zen eta zein helburu zuten jakin nahi zuten". Guztiak harremanetan jartzeko e-posta helbide bat sortuko dute, elkarren berri izateko. Bestalde, "talde motor bat finkatzen hasi behar dugu, toki bat lortzen...". Lanerako prestutasuna azaldu zien ere izan zen. Altsasuko euskalkia sustatzeko lantaldea udaberriaren eratu nahi dute. "Finkatu ahala, gutzia publiko egingen dugu".



Makina bat altsasuar elkartu ziren euskalkia berreskuratzeko deialdian.

Egitekoak

Zuazo lehenbailehen ekarri nahi dute, "oinarri hori beharrezkoa dela uste dugu. Gainera, berak euskara batuan euskalkiko hitzak erabiltzeko pausoak edo erraztasunak ematen dituen materiala dugu". Bestetik, "gogoia dagoela jakinda" oinarritzko hiztegia "modu praktikoa" lantzen hasiko dira: "tabernetan batua-euskalkia hiztegitxoak utziz, koadriletan arduradunak izendatzea eta hitzak sartzen joan dadila..." Prozesu luzea izanen dela argi dute.

Euskalkiaren aldeko saretze horretan beste eragileekin harremanetan izanen dira: EHE, AEK, Mintzakide, Euskara Zerbitzua,

Udala edo ikastetxeak. Azken horietan euskararen gaia lantzen ari da "eta hori oso arlo interesgarria da" Bengoetxeak zehaztu duenez, "zerbait egin nahi dute eta elkarlanean aritu gaitzake". Hala ere, urdindarren parte-hartzeari "aparteko garrantzia" eman diete: "beraien beharra dugu, azken finean, aditza eta deklinabidea ia berdina dela esan daiteke. Hiztegia daude aldaketak. Baina hitz egiteko modua haiengandik jaso behar dugu. Batzuk laguntzeko prest daudela badakigu". Euskalkiaren berreskurapenak Altsasun euskara gehiago entzuteko bidea ematea da beste helburu bat.

Non erabili

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ
%10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGOA TABERNA

ALTSASU
Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU
Produktua opari.

PINPILINPAUSA

ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU

IRUÑEA
Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI
Menu bereziarekin txupittoa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU
50 €ko erosketetan etxeko produktua doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ
%20ko deskontua kontsul-tan.

SAKANA

Nafarroako Hondakin Planaren zirriborroari buruzko lan bilera

Asteazkenean, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Nafarroako Hiri Hondakin Plan Integratuaren zirriborroa egin du Nafarroako Gobernuak. Martxoan nafar guztiei irekia dagoen parte hartze prozesua martxan jarri da, bost mailetan: erakundeak, toki erakundeak, lantaldea eta parte hartzea, gaikako sektoreak eta herritarrak.

Araxesko, Mendialdeako eta Sakanako herritarrei zuzendutako bilera deitua Irurtzunen helduden asteazkenearako. Bilera horretan eta Nafarroan barna egingen diren gainontzekoetan ere, planaren zirriborroan jasotako alternatiben inguruan eztabaidatu eta kontsentsuak lortzen saiatuko dira. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren asmoa da Nafarroako Hiri Hondakin Plan Integratua uda bukatu aurretik idatzia izatea da.

Parte hartze prozesuarekin departamentuak honako helburuak lortu nahi ditu. Batetik, plana aurkeztea, kontsulta prozesua errazteko eta planaren informazio aipagarria zabaltzeko, horrekin egungo egoeraren diagnosiaren berri emanez. Bestetik, plan berriaren helburuak eta neurria zehaztu nahi ditu, hondakinak bildu eta tratatzeko alternatiben artean auke-



Zintzilikarioa eta pertza Olatzagutian.

raketarako argudioak emanez. Hala, kontsentsu gutxien duten gaien inguruan gizarteak hausnartzeko espazioak sortu nahi ditu. Eta, azkenik, planean gehitu daitezke-

en proposamenak jasotzea.

Planaren helburuak

Sakanako Mankomunitateak eta Sustrai Erakuntza fundazioak auzi-

tara eramanzuten Nafarroako Hiri Hondakin Plan Integratua 2010-2020 eta Espainiako Auzitegi Gorenak arrazoia eman zien. Horren ondoren plan berria egingen hasi da, 2025era arteko indarraldia izanen duena.

Plan berria Europako Batasunak ezarritako arlo egokitzen da, hau da, hondakin sortzearen prebentzioan indarra egingen du eta hondakin deuseztatzea ahalik eta gutxien egitea sustatzen du. Besteak beste, honako helburuak jarri ditu departamentuak 2025erako: 2010rekin alderatuta etxeko hondakinak %10 murriztea, hondakin organiko biodegradagarriak herrialde guztian jasotzea eta horien %70 birziklatzea, hondakin %100 tratatzea, ontzien %90 birziklatzea eta eraikuntzako eta eraisketarako hondakin %70 baliatzea.

LARRAZA ARDOAK

948 460 014
Zugarreta, 2 • Etxarri Aranatz

Sorgiñak taberna

LAKUNTZA

948 576 357

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

www.guaixe.eus-en zerrrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

>> Etxarri Aranatz

Udala erabakitze eskubidearen eta herri-galdeketen alde

Adierazpena onartu du gaur, Etxarri herri galdeketa egin zela bi urte bete direnean

Etxarri Aranazko Udalak gogorazi duenez, "etxarriarrak lehen euskaldunak izan ziren erabakitzeko eskubide demokratikoa hautesontzien bidez gauzatu". 2014ko apirilaren 13an izan zen, herri galdeketa bidez etxarriarrak Euskal Herri independente bateko biztanleak izatea erabaki zutela A13 plataformak antolatutako herri galdeketa.

Udalak gaur egindako ezohiko bilkuran 2014ko martxoaren 28an erabakitze eskubidearen alde egindako adierazpen instituzionala berretsi du. Orduko hartan udalak aldarrikatu zuen "erabakitze eskubidea herrien oinarriko giza-eskubidea" dela. "Hala aitortzen dute 1966ko Nazio Batuen Gutunak, eta 1966ko Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Itunak, besteak beste. Herriek eta herriarrek euren estatus politikoa erabaki ahal izatea, eta euren etorkizunari buruzko eztabaida parte-

hartzaila eta baketsua egin ahal izatea, funtsezko ariketa demokratikoa da. Europan eskubide horri heldu diote estaturik gabeko zenbait herrik".

Aldi berean, Etxarri Aranazko Udalak "herriz herri sortzen ari diren herri-galdeketa prozesu guztiei babesa ematen die, eta galdeketa horiei erabakitze eskubidearen aldarrikapenean duten garrantzi estrategikoa aitortzen die". Azkenik, Etxarri Aranazko Udalak "erakunde publikoak premiatzen ditu, beharrezkoak diren prozesuak, baliabideak eta legermarkoak indarrean jar ditzatela, herritarrek demokratikoki euren estatus politikoa erabaki dezaten".

Adierazpena EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin aurrera ateratu da, PPKo Carmen Macias eta Juan Antonio Extremera ez baitira bilkurara joan. Azken horrek adierazi duenez, "uste dugu udalean gure egitekoa ez dela ezertarako balio ez duten identitate eztabaidak sustatzea, baizik eta herritarren benetako arazoei



Duela bi urteko herri galdeketa independentziaren aldeko erabakia hartu zen.

konponbidea ematea". Extreme-rak gogorazi du PPK "beti Nafarroaforal eta espainiarraren identitate instituzionala" defendatuko duela.

Galdeketen segida

Etxarri Aranatz ondoen erabakitzeko eskubidearen aldeko galdeketa egin zen Arrankudiagan, 2015eko azaroaren 2an. Aurten Gure

Esku Dagok sustatutako plataformak bidez: Goierriko 22 herritan, Azpeitian, Diman, Debagoienan, Ispasterren, Aramaion eta Bakain egiten dira. 2017 urterako behar hainbat herri eta eskualde galdeketa prestatzen ari dira: Oiarzualedea, Oarsoaledea, Urola Kosta, Bermeo, Busturia, Durangaldea, Elorrio, Aulesti, Sopela, Barrika, Hernani, Usurbil...

>> Etxarri Aranatz

Gure Esku Dagok erabakiaren arora gehitzeko deia egin du

Etxarri Aranatz independentziari buruzko herri-galdeketa egin zela bi urte bete ziren atzo. Eta aurten herri-galdeketa sustatu duten herrietako taldeetako ordezkariak, bakaikuarrak barne, egun hori eta Etxarri Aranatz aukeratu zituzten elkartzeko eta mezua zabaltzeko: "dei egiten diegu gure herritarrei parte hartu dezaten ekainean egingo ditugun galdeketa, baita ordura arteko prozesuan ere".

Gure Esku Dagok Etxarri bildu zituen esan zuten: "erabakitze eskubidearen trena Euskal Herrira iritsi da. Indarrak batu behar ditugu gure etorkizuna erabakitze. Horregatik, gai-



Herri galdeketa antolatu duten herrietako ordezkariak Etxarri. GURE ESKU DAGO

nerako herriei ere dei egiten diegu erabakiaren bidean lanean jarrai dezaten". Bidea hasi besterik ez dela egin gaitzatu zuten eta aurtengo galdeketa eredu Eus-

kal Herri osora zabaltzeko gonbidapena egin zuten: "abian da erabakiaren aroa. Eta gu pausoa ematera goaz".

+www.guaixe.eus

Ibarretxe Altsasun

Apirilaren 22an, 19:00etan, Iortia kultur gunean

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiarekin batera Ainhoa Aznarrez, Nafarroako Parlamentuko presidentea, Angel Oiarbide, Gure Esku Dagoko kidea, eta Dora Salazar, eskultorea, izanen dira. Agirre Lehendakaria Centerrek (ALC) sustatutako Open Akademiaren saioa izanen da. Bere helburu nagusia euskal esperientzia zabaltzea eta partekatzea da, batez ere kulturaren arretari jarrit: kultura berrikuntza, garpenera eta ikerkuntzarekin batera joan behar den eraldaketaren elementu garrantzitsua delakoa ongi baikaude. Open Akademia ekimenak euskal gizartearen erronken inguruan eztabaida sustatu nahi du.

>> Olatzagutia

UPNko Alvarez zinegotziak dimititu egingen du

Udalean inolako jakinarazpenik ez badute ere, Diario de Navarra asteartean argitaratu zuenez, Oscar Alvarez Peon zinegotzi erregionalistak hilabete akaberan dimisioa emanen du. Alvarez aurreko legegintzaldian PPKo zinegotzia izan zen Olatzagutian eta legegintzaldi honetan UPNk dituen bi zinegotzietako bat da, bestea Javier Fernandez Briuzela da, Juan Jose Galartza Aldabek dimititu ondoren. Dimisioa gauzatuko balitz, UPNko antolakuntza idazkari Jorge Esparza Garrido litzateke Alvarezren ordezkaria.

+www.guaixe.eus

Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Benignoren lagunak, auzolan-omenaldiaz
- Altsasuko euskalkiaz
- Castillo Suarez, azken liburuz

107.3 FM
beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

» Uharte Arakil

36ko errepresaliatuen memoria historikoa jaso, aitortu eta erreparatzeko

Asmo horrekin hainbat uhartearekin Uharte Arakil, 80 urte memoriari gaitzen taldeak sortu dute. "Gure artean hainbeste denboran ezkutatu egon den errealitatea ezagutzeko nahidugu. 80. urteurren honetarako aukera paregabea sortzen du altxamendu faxistaren biktimak izan zirenei babesa emateko eta merezi duten errekonozimendua egiteko". Izan ere, 1936an Victor Martiarena, Silverio Astiz Lakuntza (alkatea izana) eta Silverio Astiz Ezkurdia aita-semeak erail zituztela. Errepublikaren kontrako estatu kolpearen ondorioz beste hainbat uhartearekin errepresaliatuak izan ziren. "Francoren diktaduraren lehen biktimak izan ziren".

Hiru eraildakoen gorpua Iberon induskatu den fosa batean egon daitezke. "Gaur egun oraindik ez dakigu posible izanen den hiru uhartearen hauek ekartzea. Oraindik lan asko dago egiteke, espero dezagun noizbait hiru pertsona hauen gorpua etxera eka-

rriko ditugula, gorpua euren familiei itzuli eta merezi duten omenaldia egin ahal izateko". Horregatik, talde sortu berriak erakundeei Iberoko indusketak eta hezurduren identifikazioa babesten segitzeko eskatu diete.

Bi lan ildo

Taldea, batetik, 1936an gertatutakoa ikertzen ari da, "bai eraildakoa bai errepresioa jasan zutenak. Gure helburua, Uharte Arakilgo herriak gertatutakoaren dimentsio osoa izatea, Uharteko gizartearen izan zuten ondorioez kontziente izatea". Bestetik, memoria historikoaren aitortzea eta kontzientziazio lanetan. Hala, eraildakoei aitortza egin eta haien hezurdurak bilatzeko udalarekin eta eraildakoen familiekin harremanetan eta lankidetzan ari dira.

Taldea aurkezteko hitzaldi sorta prestatu dute eta lastailaren 29rako Memoriaren Eguna antolatuko dutela jakinarazi du: "Egun



Uharte Arakil, 80 urte memoria gaitzen taldekoak egitarauarekin. N. MAZKIARAN

horretan omenaldi xume bat egin nahi diegu Uharte Arakilen errepresaliatuak izandako pertsonen familiei". Bestalde, udalarekin

harremanetan daude "frankismoaren errepresaliatuen omenean esparru bat zabaltzeko. Pertsona hauei dedikatutako esparrua nahi

Egitaraua

Apirilak 22, ostirala
19:00etan II República y Guerra civil en Navarra. Hizlaria: Javier Drona, Historian doktorea eta Gerónimo de Uztáriz insititutuko lehendakaria. Udaletxean.

Apirilak 27, asteazkena
19:00etan Errepresio Franquista Nafarroan eta bideo proiektzioa: Desafectos. Esclavos de Franco en el Pirineo. Fernando Mendiola, Historian doktorea eta Nafarroako Memoria Historikoko Dokumentazio Funtseko koordinatzailea. Udaletxean.

Garagarriean
Iberoko hobira irteera eta omenalditxo.

Garilak 20, asteazkena
Hiru uhartearekin atxilotu zituzten eguna. Lastailaren 29ra arte luzatuko den 2. fasea jarriko dute martxan.

dugu, datozen belaunaldiak gertatu zena jakin dezaten eta holarik berriro gerta ez dadin".

» Arruazu



Udalak Basterretxearen Enneco obra jaso du

Arruazuko Udalak Enneco, haritzaren memoria egitasmoa diruz lagundu du. Proiektuaren sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazioak laguntza horren aitortza gisa udalari parkean izanen den Nestor Basterretxearen Enneco eskulturaren errepika eman dio udalari, Patxi Satrustegi zinegotziak jasozuen. Eskultoreak bere obra horri buruz zioen estatuaren gogortasuna eta mendeetan zehar Nafarroak jasan duen errepresioa adierazteko, baina baita herritarrek beraien kultura eta hizkuntza mantentzeko bilatu dituzten moduak ere.

» SAKANA

1936an hildako hautetsien Parlamentuko plaka tokiaz aldatuko dute

Ekitaldia igandean izanen da, 12:00etan, Parlamentuko atarian

Nafarroako Legebiltzarrak Nafarroako errepresioaren 80. urteurrenako antolatu dituen jardueren barruan dago ekitaldia. Altxamendu militarren ondorioz eraildako hautetsi nafar guztien omenez eta haien errekonozimendurako da plaka toki egokiago batean jarriko dute. Plakan 7 hautetsi sakandardude. Hiru alkate: Silverio Astiz Lakuntza (Uharte Arakil), Antonio Goikoetxea Otegi (Altsasu) eta Epifanio Gonzalez Villar (Ziordia, frontean hila). Lau zinegotzi ere badaude: Pedro Ihabar Arbizu (Arbizu), Felix Lopez Sanchez (Etxarri Aranazko udalgestorako kide), Isidro Zornoza de Jorge (Altsasu) eta Ramon Goikoetxea Etxeberria (Ziordia, frontean hila).

» Altsasu

Errepublikaren 85 urteurrena gogoan

Soldadu langileen batailoietako kideen omenezko oroigarrian lore eskaintza eginez hasi zen Errepublikaren Eguneko omenaldia atzo. Ezker Batuko Arturo Carreñok hitza hartu zuen eta, lehen lehenik, "askatasunaren eta justiziarren alde guztia eman zuten gizon-emakumeak" izan zituen gogoan. "Mendeetan iraunen duen zintotasunaren, ohorearen eta zuzentasunaren hazia erein zuten, gauzak arduraz, ongi eta gardentasunez egitearen oinarri dena".

Errepublikaren lorpena zerrendatu zituen Carreñok: aberastasunaren banaketa, hezkuntza unibertsala eta publikoa, osasuna, lurren banaketa... "Lanaren eta aberastasunaren banaketa egon den aldi bakoitzean norbait harekin bukatzen saiatu da, eta gehienetan lortu du. Indartsu izan gaitezen eta batuta mantendu, ezinen dute



30 bat errepublikazale elkartu ziren atzoko ekitaldian.

gurekin". Egunen ondoren Espainiak gobernurik ez izatea kritikatu zuen. "Langabezia, prekaritatea, miseria, soldadak, dependentziarako laguntza eskasak eta pentsio txikiak nagusi

diren bitartean, egunero ustelkeria gehiagoren berriekin gosaltze dugu". Carreñok eusteko deia egin zuen eta Espainiako hirugarren errepublikaren aldeko aldarria eginez despeditu zen ekitaldia.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaya supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

ALTSASU **OLAZTI** **ETXARRI ARANATZ**

948 468 755 948 461 660

» Etxarri Aranatz

Ekin-en auzia akordioarekin itxi da

Patxi Arratibel eta beste lau euskal herritarren eta fiskalaren arteko akordioari esker, 04/2014 sumarioa auzipetuek ez dute berriro kartzelara joan beharko (urte eta erdi eman zuten behin behineko espetxealdian)

Akordioa ixtea hamabost minutuko kontua izan dela azaldu digu Patxi Arratibelek. Fiskalarekin adostuta, espetxe zigor eskariak zortzi urtetik bira murriztu dituzte, eta ez dira espetxera itzuli beharko. "Erakunde terroristako kide izateagatik" zigortuak izan dira. Fiskaltzaren iritziz, "Ekineko kide izanda, ETaren aparatu politikoko kide desdoblatur gisa, 2009. eta 2010. urteetan ETaren aginduetara ezker abertzaleko hainbat antolakunde koordinatu eta dinamizatu zuten".

Arratibelek esan digunez, aurretik akordioaren berri bazuten, baina ezin zutela ezer esan azaldu digu, "halakoak ongi eraman behar dira". Arratibelek azaldu digunez, Segurako auzian lortutako akordio bera da orain onartu dena. Ibiltzean bezala gaur ere akordioan jaso dago, auzipetuen "ekinbidea estatuaren lege-diaren kontrako" izan zela. Horrekin batera, bostek "indarkeriaren erabilerarekin zerikusia duen edozein jarduerari" uko egiten diote,



Patxi Arratibelen epaiketa eta akordioaren ondoren Madrilan.

aitortza horrekin "terrorismoaren biktimei sortutako sufrimenduetatik erreparazioan" laguntzeko. Segurako auzian lortutako akordio bera da. Larunbatean prentsaurrekoan guztiaren balorazioa eginen dute bost nafarrek.

Tortura salaketa

Guardia Civilak 2011ko urtarrilaren 18an atxilotu zuen Arratibel. Inkomunikazioaldian torturatua izan zela salatu zuen eta polizia deklarazioan abizenaren ordeztu Aztnugal (laguntza, alderantziz) idatzi zuen. Jasotako tratua lekuakotza uzteko eta bera eta beste pertsona batzuen kontrako

inkulpazioa baliorik gabe uzteko saioa izan zen hori. Tortura testigantza Europako Giza Eskubideen Auzitegiraino eraman zuen etxarriarrak eta Estrasburgoko auzitegiak Espainiako Estatua zigortu zuen, salaketa hura ez ikertzeagatik. Atzeko aurrerako hitz hori, Aztnugal, bihurtu dute auzia salatzeke kanpainaren ikur.

Beste bat

Ekini lotuta beste sarekada bat egin zuten 2010eko irailean. Orduan atxilotutako bederatzi lagun maiatzaren 17an epaitzen hasiko dira. Haien artean dago Joxe Aldasoro etxarriarra.

» David Jaime Deanen berri

Asteazkenean, 19:00etan, Etxarri Aranatzko liburutegian Jose Mari Esparza Saralegik hari buruz idatzitako liburua aurkeztuko du

Jose Mari Esparza Zabalegik liburua argitaratu duenean jakin izan du etxarriar eta sakandar askok David Jaime Dean urtetan Etxarri bizi izan zela. Eta Errepublikan ezartzean Nafarroako Diputazioako Kudeaketa Batzordeko kide izan zela Constantino Salinasekin batera. Edo erbestean diputazioaren ordeztu zen Nafarroako Kontseiluko kide zela. Horren guztia eta gehiagoren berri jasotzen da Nuestro pueblo despertará. David Jaime y la República Vasconavarra liburuan. Esparzak berak asteazkenean liburua Etxarri bertan aurkeztuko du, 19:00etan, liburutegian.

Esparzak berak aitortu digu miresmenetik idatzitako liburua dela. "Nafarroako errepublikazaleetatik pertsona interesgarriena da. Pasioz laiko, errepublikazale, ezkerreko, euskaldun eta autonomia galdu gabe Euskal Herri guztiarekin batua zegoen Nafarroa baten aldeko konpromisoa izan zuen". Izquierda Republicanako kide, bere eta alderdikideen ibilbideek "autonomiaren eta euskal batasunaren gaia abertzaletasunaren monopolioa ez zirela izan era-



David Jaime Dean. UTZITAKOA

kusten digute" esan du Esparzak, gaineratuz, Daviden moduan, "asko izan ziren, ezkerretik, gizar-te eta nazio gaiak eskutik zihozela onartzen zutenak. Eta garesti ordaindu zuten".

Idazleak dioenez, belaunaldi horren lekukotza "denek estali dute. Faszistendako benetako rojoseparatistak izan ziren. PNVren ideiekin ez zetozen bat. PSOEn dako eta Espainiako ezkerren dako historiako ahots ezerosoak dira, trantsizioan Nafarroa beste euskal lurraldeetatik banatzeko trantsizioan esandako gezur pila agerian uzten dituelako".

+www.guaixe.eus



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Txarete Ganboa Garciandia

Kulturarteko inurritegian bakarti gelditu gara, zure izaera apartarekin gure bihotzetan sartu baitzara. Eskerrik asko, eta ez adiorik.



Txingurriye laguntza eta aisialdi taldea

Lakuntzan, 2016ko apirilaren 3an.

JAIOTZAK

- Uxia Chavez Alves, martxoaren 30ean Olaztin.
- Maddi Lazkoz Errazkin, apirilaren 4ean Etxarri Aranatzan.
- Salid Bouojaja Bouojaja, apirilaren 5ean Irurtzunen.
- Laihotz Agirre Arruti, apirilaren 8an Arbizun.
- Irati Fernandez Sergio, apirilaren 9an Altsasun.

EZKONTZAK

- Eduardo Beorlegi Armendáriz eta Noemí Amescua Lozano, apirilaren 5ean Lakuntzan.

HERIOTZAK

- Mikaela Navarro Soto, apirilaren 3an, Lizarragan
- Rosario Irisarri Amondarain, apirilaren 9an Iturmendin

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri

Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuek deitu 676 92 71 65 telefonora.

Opatutakoak / Galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkeztu du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, www.ueu.eus

Batukada ikastaroa. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean, apirilaren 23an eta 24an, 18:00 etan. Irakaslea: Oskar Estanga. Plazak libre daude. Hilaren 22ra arte eman daiteke izena. 3€ ordaindu behar dira. Informazio gehiago: 948 56 47 85 edo intxostiapunta@gmail.com

Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko. Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei, bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Apirilak 25, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane, Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es
Haziendako izapideak on-line bidez nola egin. Ekintzaileei eta bere kontu lanean ari direnei,

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektroniko: zorian@guaixe.eus

bereziki izapideak on-line egin nahi dutenei zuzenduta. Maiatzak 2, 10:00-14:00. Cederna Garalur/Utzugane. Arbizu. Izen ematea 948 56 10 10 edo sakana.admon@cederna.es

Oharrak

Olatziko irakurle taldea. Alan Bennetten "Una lectora nada común" liburua hizketatzeko elkartuko dira, apirilaren 15ean, ostiralean, Olatzagutiako liburutegian.

Etxarriko irakurle taldea. Toti Martínez de Lezea "Enda" liburua hizketatzeko dira apirilaren 28an, ostegunean, 19:00etan liburutegian.

Sagardotegira. Etxarri Aranatzko Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu du apirilaren 30erako. 13:00etan abiatuko dira herri-tik, eta Hernanitik bueltatzeko ordua 5:00etan jarri dute. Txartelak 40 eurotan Leku Ona eta Xapatero tabernetan daude.

RESANO URREZKO AIZKOLARI TXAPEL-KETAN: Bilbok hartuko du asteburu honetan Urrezko Banakako Aizkolari Txapelketa. Larunbatean, 12:30ean, Iban Resano

dorrobarrak, Luis Txapartegirekin, Jesus M^a Mugikarekin, Julen Alberdirenkin, Joxean Etxeberria II. arekin eta Julen Larrea III. arekin neurtuko da.

Kirola >>

Txirrindularitza

Kadeteak Arbizun lanera

igandean, 11:00etan, 52 km-ko Arbizuko Kadete Saria dago jokoan

Aralar Txirrindulari Taldeak antolatuta, igandean kadete mailako lasterketa hartuko du Arbizuko Zehazki, Arbizuko Kadete Saria egongo da jokoan, 52 km-ko proba. Bertan Aralar Txirrindulari klubeko InterSport Irabia taldeko eta Burunda Txirrindularitza Klubeko Quesos Albeniz taldeko txirrindulariak lehiatuko dira.

Lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da, Arbizuko plazatik. Lizarragabengoara jaitsita, Etxarri Aranatzera iritsiko dira ondoren, Utzubar industrialdetik barna Arbizura iristeko. Ibilbide bera hirutan errepikatuko dute, eta ondoren, Arbizutik Unanukobidegurutzera irajokatu dute, handik Unanu eta Dorraora jotzeko. Ibilbideak Lizarragakokatera eramaten du tropela. Beharkean Lizarragara zeharkatu eta Etxarri Aranatzetik pasa ondoren, Arbizuko helmuga izanen dute helburu txirrindulariek.

EUSKAL HERRIA TXAPELKETA

Kadeteek igande goizean Eibarren parte hartu zuten LVI. Otxoa Gaztetxo Torneoan, Euskal Herria txapelketako lehenengo lasterketan, 48 km-ko distantzia zuena eta bikain ibili ziren. Gastronomía Basca-Avia taldeko Jon Barrenetxea izan zen lehena, (1:13:27) Quesos Albenizko Ailetz Lasak 2. bukatu zuen 3 segundura (1:13:30), Josu Etxeberriak 6. (I.I), Marcos Pisonnek 11. (Q.A), Mateo Gonzalezek 16. (Q.A), Imanol Galartzak 38. (I.I), Urko Gorritik 51. (I.I), Javier Michaussek 64. (I.I) eta Josu Jakak 95. (I.I) eta taldekako sailkapenean Quesos Albeniz lehena izan zen eta InterSport Irabia bosgarrena. 225 txirrindularik parte hartu zuten eta eroriko ugari egon ziren. Haietako batean Ion Gil Irabiako txirrindularia joan zen lurrera.

ASIER ETXEBERRIA LIZARRAN GARAILE

Aurreko larunbatean XXIX. Meoki oroimenezkoa jokatu zen Lizarran eta junior kategoriako lasterketa Asier Etxeberriak irabazi zuen, 1:50:02 denbora eginez. Juan Riaño 3.a eta Xabier Maiza 8.a denbora berean, 1:51:09, Alex Unzilla 16.a (1:52:52), Hodei Zia 27.a (1:53:13). Taldekako sailkapenean Quesos Albeniz taldea irabazlea izan zen.

SAKANDARRAK OTEIZAN

74. Pazko zirkuitoan, master mailan, Oteizan izan zen lasterketa (133 km) Jaime Castrillok irabazi zuen (3:26:05). Pablo Benito (C.R.-RGA) 40.a (3:32:00), Eneko Aramendia (C.R.-RGA) 47.a (3:32:30), Iraitz Goñi (ATT) 51.a eta Ander Alonso (C.R.-RGA) 57.a denbora berean (3:32:30).

Txirrindularitza

Etxarri, txirrindulari onenen topaleku

Gaur abiatuko da Emakumeen Birako 2. etapa, Etxarri Aranatzetik, 15:30ean

Emakume txirrindulari onenak biltzen dituen XXIX. Nazioarteko Emakumeen Bira herenegun hasi zen Lizzie Armitsteaden azken uneko hutsunea izanik, bera baita munduko txapelduna, baina britainiarra gaixorik dago eta ezin izanen du Biran parte hartu. Txirrindulariek izan zuten lehen frogara, Iurreta-Iurreta (3,3 km) erlojupekoa izan zen eta Lotta Lepistö (Cervelo) izan zen herenegungo irabazlea, 4:12 ko denbora eginez. Eskoriatzan hasi eta despeditu zen (76,6 km) etapa atzo. Guaixe-ko erredakzioa ixterakoan oraindik ez genuen atzoko emaitzen berri.

Gaur Emakumeen Birako 2. etapa dago jokoan, Etxarri Aranatzetik hasi eta Urkiolako gainean (3. maila) despedituko dena. Etapa 15:30ean abiatuko da, Etxarri Aranatzetik plazatik, baina goizeko 11:00etatik mugimendua egongo da Etxarrin. Izan ere, proban parte hartzen duten txirrindulari taldeak Etxarrira helduko dira, bere autobus eta azpiegitura guztiekin. 14:30etik 15:20ra bitartean sinadura kontrola pasa beharko dute txirrindulariek eta proba prestatzen ariko dira taldeak. Etxarri Aranatzetik Udaletik gogorazi nahi dute Emakumeen Bira dela eta, herri guneko hainbat eremu itxita egongo direla. Hortaz, arreta izateko deia egin diete herri-

Leire Maizak eta Joana Irastorzak moztuko dute zinta



Emakume kirolarien lana aitortzeko bide horretan, txirrindularitza ibiltzen diren bi emakume etxarriarrek, Leire Maizak eta Joana Irastorzak, egingen dute Etxarriko etapari hasiera emango dion zinta moztuko dute, 15:30ean, udalak gonbidatuta. Txirrindulariak dira biak, eta horretaz aparte, duatloian eta triatloian ere aritzen da Leire Maiza. Halaber, Etxarriko Udalak Emakumeen Birako etapa hasierara ikastolako eta eskolako neska-mutikoak gonbidatu ditu, puntako ekitaldi horretaz parte-hartzeko aukera izan dezaten.

tarrei eta proba jarraitzera hurbilduko direnei.

Etxarri Aranatz-Urkiola etapa (109,4 km)

Emakumeen Birako 2. etapa Etxarriko plazatik abiatu eta emakumeen tropelak Burundarako norabidea hartuko du -Bakaiku (15:35), Iturmendi (15:37), Urdiain (15:39), Altsasu (15:42), Olazti (15:48)-, eta Ziordiko gasolindegiko errotonda hartu eta gero (15:53), Arabara sartuko dira, Eginora (15:57). Lautadatik eta Barrundiatik ibili ondo-

ren, Landatik Legutiora joko dute. Handik Urkiolako gainerako norabidea hartuko dute, bertako santutegian egongo baita helmuga (3. maila).

Udalak emakumea, kirola eta berdintasuna sustatu nahi ditu

Etxarri Aranatzko Udaletik adierazi dutenez, "oso pozik" daude Emakumeen Birako etapa bat estreinatzeko Etxarritik abiatuko delako.

"Etxarrin, eta Sakanan, beti

izan dugu txirrindularitzarekin harreman estua eta horrela jarraitu nahiko genuke, txirrindularitza sustatuz. Baina, horretaz aparte, Emakumeen Birako etapa sustatzarekin txirrindularitza eta kirol guztietan emakumeen presentzia aldarrikatu nahi dugu. Emakumea, kirola eta berdintasuna sustatu nahi ditugu. Emakumeak erreferente izatea nahi dugu, eta gizonen kirolak duen oihartzuna lortzea, bai maila mediatikoan eta baita maila ekonomikoan ere" nabarmendu du Udalak.

Txirrindularitza

Imanol Erbiti 9. Paris-Roubaix lasterketan

Urte berean Flandeseko Tourrean eta Paris-Roubaixean Top tenean sailkatu den lehen nafarra da

Paris-Roubaix lasterketan, 257 km-ko egun bateko lasterketan, Imanol Erbiti beste pausu bat eman du bere ibilbidean, curriculum handitu eta erakutsi du lan eginez eta iraunkortasunez ez dagoela ezer aurre egiten dionik.

"Ez da ihesaldi eroso izan, oso azkar joan gara. Ez dugu haizea hartzeko une bat bera ere izan, harrapatu gaituztenean km bakoitza tortura bat izan da". Hauek izan ziren Imanol Erbitiren adierazpenak. Uneoro erritmoa mantentzen saiatu zen, nahiz eta aitortu zuen aurrean zihozanak berak baino indar gehiago zutela.

Bestalde, Movistar taldeko kirol zuzendariaren esanetan, taldearen tzako onena Erbiti ihesaldian sar-



Imanol Erbiti aurreko lasterketa batean. UTZITAKOAK

tzea zen taldearen ahaleginaren helburua hori baitzen. Zuzendariaren esanetan zorteak zerikusi handia izaten du lasterketa honetan eta uneoro Erbitiri energia aurreratzeko eta ahalegina dosifikatzeko eskatu zion.

Lasterketako irabazlea Matthew Hayman (Orica) izan zen, 257

km-ak 5:51:53ko denbora eginez eta Imanol Erbiti 9.a, irabazlearen gandik 1:07ra helmugaratuz.

Imanol Erbiti aste borobila egin du, 7. amaitu zuen Flandiako Tourrean eta 9. Paris-Roubaixean. Belgikako lasterketan nekatuta amaitu zuen baina ongi erreperatu eta sasoian dagoela erakutsi du.

Triatloia



Izen ematea ekainaren 17ra arte

Sakanako Mankomunitateak Triatloia Kanpusa antolatuko du Altsasuko Zelandiko Kirolgunean. 8 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta eta garilaren 4tik 15era, astelehenean ostiralera, goizeko 11:00etatik 13:00etara da. Izen ematea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan egin behar da, 948 464 866ean edota kirolak@sakana-mank.eus-en. Matrikularen prezioa 40€-koa izanenda. Begiraleak Aitor Mozo eta Urko Berdud izanzen dira eta teoria eta praktika landuko dute, atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza uztartzen duen kirol honetan. Erabiliiko den hizkuntza euskara izanenda. Antolatzailea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua, Sakanako Triatloia taldea eta ATABO dira.

Pilota



Aurkezpena egin zuteneko talde argazkia. UTZITAKOA

Bertan da Buruz Buruko Pilota Txapelketa 2016, arautegian aldaketak eta guzti

Ezkudiak Merino II.aren kontra jokatu du gaur, 22:30ean, Iruñean

Aipatu bezala arautegi aldaketaren albisteak bigarren mailan utzi zuen Buruz Buruko txapelketaren aurkezpena. Aimar Olaizolak eta Martinez de Irujok ere huts egin zuten, lehena gaixorik eta Irujok traumatologoarengana joan behar izan zuen.

Txapelketari dagokionez, gaur, 22:30ean, hasikoda, Iruñean, Joseba Ezkurdiak eta David Merinok jokatu duten kanporaketarekin (ETB1 eta NTB). Hamasei pilotari ariko dira, lau adarretan banatuta. Finala, berriz, maiatzaren 29rako dago aurreikusita. Zein

pilotalekutan jokatu den oraindik zehazteko dago. Arbizuarraren laugarren txapelketa izanen da aurtengoa eta adierazi duenez, egokitu zaion adarra oso gogorra da, beraz ez du merezi luzerako helburuak jartzea. Helburutzat lehen partida jarri dio bere buruari.

Bestalde, berritasunen artean, Victor Esteban eta Irribarria daude, iazko Bigarren Mailako txapelkun eta txapelkunordea, hurrenez hurren. Irribarria atariko bat irabazita sailkatu zen, alferrikakoa Jose Javier Zabaleak txapelketari uko egin baitio eta Aspek beste aukera bat eman dio Merino II.ari.

Arautegiaren aldaketei dagokionez, besteak beste, bukatu da arrazoi sendorik gabe aldagela-

ra joatea, Irujok binakako txapelketako finalean egin zuenak tanto bat kentzea eta sarea galtzea eragingo lukeelako eta aurrerantzean txapelketa eta torneoetan, mediku eta epailearen baimenik gabe kantzatik irteten den pilotariak tantoa eta sarea galduko dira eta kantzara itzuli ezean ere tantoa galtzeko arriskua izango dute pilotariek. Joseba Ezkurdiak ere adierazpenak egin ditu honen harira eta esan du zerbait pasatzen denean ikusiko dela aldaketak nahikoak ote diren. Beharrezkoa zela, zaletuek eskatzen zutela eta eskaera horri seriotasuna erantsi zaiola. Txapelketa hasterekin batera arautegi berria indarrean sartuko da.

Futbola

Izen ematea zabalik apirilaren 8tik aurrera

Sakanako Mankomunitateak atzera ere udarako Futbol Kanpusa antolatu du Altsasun. Honako hauek parte har dezakete:

Garilaren 18tik 23ra 2004-2005-2006an jaiotakoak eta garilaren 25etik 30era 2001-2002-2003an jaiotakoak. Aste bakoitzean 30 parte-hartzaile egonen dira eta izena eman ahal txandak betetzen joango dira. Tokia gordetzeko Manken ordainagiria aurkeztu beharko da eta beharrezkoa balitz itxaron zerrenda egingo litzateke. Kontua: 3035 0116 93 1160003328 (Euskadiko Kutxa). Ordaintzerakoan partaidearen izen abizenak zehaztu aurrera.

Kanpusaren prezioa 45€koa da eta prezio horren barruan dago Anotara egingo den irteera. Kanpusa goi mailako entrenatzaileek zuzenduko dute. Peio Goikoetxeak eta lokin Lobok. Erabiliko duten metodologia, teorikoa eta praktikoa izango da. Jolasen bidez landuko dute guztia eta bukatzeko igerilekura joango dira. Aipatzen dute inguruan ere irteerak antolatuko dituztela.

Izen ematea apirilaren 8tik aurrera egingo da eta Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuan, 948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus edota www.sakana-mank.eus.

Antolatzailea Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua da ATABOren laguntzarekin.

Areto futbola



Magnak gorriak eta bi ikusi zituen garaipena lortzeko

Lotura eza, sorpresa, gaintu eta irabazi. Hitz horiekin labur genezake Magna Gurpea eta Antequeraren arteko larunbateko partidua. Imanol Arregiren taldeak 6 eta 4 irabazi zion sailkapenean azkena zen taldeari. Entrenatzailearen hitzetan, lehen zatian akatsak izan zituzten eta ez zuten ongi jokatu baina bigarren zatian hobe jokatu zuten. Garrantzitsuena teknikoarendako irabaztea zen eta honek indarrak ematen dizkio taldeari gelditzen dena ongi amaitzeko.

Lehen mailako areto futboleko liderra Inter Movistar da (77 puntu). Magna Gurpea Xota 5. postura igo da (47 puntu). Gaur 13. den Jaen (2 puntu) izango du aurkari Magna Gurpeak, arerioaren zelaian. Nafarroako derbia apirilaren 24ean jokatu du Tuteran.

Futbola

PREFERENTE MAILA 1. multzoa

27. JARDUNALDIA

AURRERA K.E 2 - ETXARRI 1

Aurrerak ongi landutako garaipena lortu zuen oso bigun zegoen zelaian. Bi taldeak oso ongi kokatuta egon ziren baina ez batak ez besteak ez zuten ate aurrean asmatzen. Unairen ongi harilkatutako jokaldi batek Aurreraren gola ekarri zuen eta ordutik Etxarri jokoan dominatzen hasi zen. Alainen gola etorri zen bigarren partean eta honek berdinketa ekarri zuen. Hartu eman handiaren ondoren etorri zen etxekoan 2. gola, Josebaren erasoan.

LAGUN ARTEA 0 - AIBARES 4

Aibaresen garaipen justua etxekoek aurkariari erraztasun guztiak eman zioten partiduan. Baloiarekin gauza handirik ez zuen egin Lagun Arteak eta horrek bisitariei garaipena ekarri zien. Atsedendia ondoan Enekok mustu zuen markagailua eta horrek bizitasun pixka bat eman zien lakuntzarrei baina pixkanaka partiduaren marxa hasierakora bueltatu zen eta azken ordu laurdenean etorri ziren hurrengo 3 golak. Lagun Artearen joera txarra areagotu zuen partidua honek.

Sailkapena >>

1. Gares	57 puntu
4. Etxarri Aranatz	46 puntu
6. Lagun Artea	41 puntu

Asteburuko jardunaldia:

ETXARRI ARANATZ-C.D.URROZTARRA

(Etxarri, igandean, 17:00etan)

INFANZONES-LAGUN ARTEA

(Obanosen, larunbatean, 17:00etan)

ERREGIONAL MAILA 3. multzoa

27. JARDUNALDIA

DONEZTEBE 1 - ALTSASU 1

Donezteben jokatuako partiduan Altsasuk berdinketa lortu zuen. Hasiera indartsua izan zuten bi taldeek. Altsasuarrek partiduaren nagusitasuna lortu nahi zuten. ahalegin horretan Donezteberen area barruko jaurtiketa batek Altsasurendako penaltia ekarri zuen eta Martinezek aukera probestu zuen. Doneztebe biziberritu zen eta Altsasu bere aldean estutu zuen. Bigarren zatian, Doneztebek hobe jokatu zuen eta arriskuko jokaldi gehiago izan zituen eta Irailen gola iritsi zen. Etxekoak saiakera gehiago izan zituzten baina Altsasukoak itxi egin ziren Ekaireren portierari jokaldi arriskutsuak saihesten.

Sailkapena >>

1. Doneztebe	69 puntu
10. Altsasu	29 puntu

Asteburuko jardunaldia:

ALTSASU-AURRERA

(Altsasun, igandean, 16:45ean)

ELOMENDI KO TXAPELKETA

2.FASEKO A MULTZOAK. 14.JARDUNALDIA

EGIARRETA 7 - RINCON DE I. 3

ZALDUA 4 - ENERIZ 1

Sailkapena >>

1. Bar Mikel	34 puntu
2. Egiarreta	27 puntu
4. Zaldua	19 puntu

Asteburuko jardunaldia:

ZALDUA - EGIARRETA

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketan 13. jardunaldia jokoan

Igandean, 11:00etatik aurrera, Altsasuko Dantzalekun

Sakanako Futbol 8 Topaketetako 13. jardunaldia egonen da jokoan. Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketak Sakanako Mank-ek antolatzen ditu.

13. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun

11:00etan: Sutegi - Dantzaleku

11:00etan: Lagun Artea - Kaixo

12:00etan: Urdiain - Mediolanum

12:00etan: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa

Atsedenean: Sayas



XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketa

Aurrera darrai Irurtzungo txapelketak eta hauek asteburuan eta astean zehar jokatu diren partiduen emaitzak.



Emaitzak:

Apirilak 9:

Lansalot - Arratibel 14 / Ansa - Irurita 22

Tainta - Etxamendi 22 / Mayans - Cordon 6

Apirilak 12:

Iriarte - Sarasa 22 / Tainta - Etxamendi 16

Apirilak 13:

Zudaire - eskudero 22 / Landa - Fernandez 9

Yoldi - Gorriti 22 / Apezetxea - Azpitarte 21

Hurrengo partidak

Apirilak 17, igandea, Etxarreen

11:15ean

Garralda - Landiribar / Mendinue-

Perez

Ongai - Tabar / Olano - Lizoain



GRAVNI: Nafarrak Bizkaian aritu ziren

Palan, Abadiñon eta senior kategorian Aristorena eta Zamora bikote nafarrak 30-9 utzi zuen Hoyos-Thate bikote bizkaitarra.

Larrabetzun, gomazko palan eta jubencil kategorian, Murillo-Mendiñeta bikote nafarrak 30-21 gailendu ziren Idoiaga-Ugarriza bikote bizkaitarra.

Tornosolon, palan eta jubencil kategorian, Espinal-Parot bikote nafarrak 30-9 irabazi zieten bizkaiko Zugaza-Saezi.

ASTEBURUKO EMAITZAK

Josexo Ezkurdi memorialean, Donezteben, eta lau terdian, senior kategorian, Irurtzungo Aimar Lansalot 0 Zegamako Matxin 18. Iruritan eta infantil kategorian, Laudioko Arbaiza 18 Arbizuko Mikel Imaz 8. Eratsunen, alebinkategorian, Irurtzungo Unai Gorostieta 12 Aldabideko Iraitz Imaz 18. Eta bigarren mailako eskuzko zortzirenetan eta Eibarren Retegi bizkaitarra 22 Gorka-Tolosa 12

Automobilismo



Javier Goikoetxea eta Carlos Aldekoa 3.ak Nafarroako II. rallyan

Aurrekolarunbatean ospatu zen Nafarroako Zirkuituko II. Rallya, Nafarroako Zirkuitoaren inguruan antolatutakoa. Joan "Nani" Romak eta Alex Harok lortu zuten garaipena, Dakar rallyan bi aldiz irabazitakoak, bigarren Alexander Villanueva eta Oscar Sanchez eta hirugarren Javier Goikoetxea eta Carlos Aldekoa. Rallya azkarra eta polita izan zela adierazi zuen pilotu sakandarrak. Jendetza bildu zen ibilbide guztian zehar eta eguraldiak ere lagundu zuen. Javier eta Carlos Espainiako txapelketarako sailkapenean 2.ak dira.

Irribarrea hobetu nahi?

Irribarre polit bat osasunaren eta ongizatearen isla da. Esperientzia eta espezializazioa oinarri hartuz,

eta tratamenduetan erabiltzen diren goi mailako teknologiari esker, kasu bakoitzean emaitza ezin hobekak lor daitezke. Sakanako

Hortz Klinikak hauetan aurkituko dituzu zure irribarrea hobetu eta indartzeko tratamendurik egokienak.

BERRETEAGA HORTZ KLINIKA

Altsasun 27 urte daramagu, lehenik Intxostia zeharbidean eta orain dela 7 urte klinika berri honetan, Intxaurren kalean, Eroski ondoan. Gure zerbitzuak honakoak dira:

948 563 107
Intxaurren, 4, behea
ALTSASU

Ortodontzia

Hortzetako posizio eta lerrokatzeen arazoak zuzentzeko espezialitate odontologikoa da. Teknika honen bidez hortz zatiak alineatuta eta era zuzen baten erabiltzeko zein estetikoki ondo jartzeko balio du.

Inplanteak

Inplante dentala sustrai artifizial bat da goiko edo beheko hezuraren sartuz lotzen dena, inplanteek ordezko hortz artifizialen prote-

sian euskarri bezala jokatzen dute.

Protesiak


Protesi estomatologikoa edo protesi dentala deitua bi eratakoak izan daitezke: protesi mugikorra edo finkoa.

Haurrak eta helduak:

PADI, HHZPI programarekin lan egiten dugu, Nafar Gobernuak sustaturiko programa da eta 6-16 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Doako zerbitzua da.



ETXARRI HORTZ KLINIKA



Etxarri Hortz Klinikak 2013ko urrian zabaldu zituen ateak, Sakanako ekialdean hortz klinika baten beharra ikusita. Odontologia orokorra eta neurofokala dira bere zerbitzu nagusiak. Terapia neurala odontologiarako egokituta da haien lan egiteko modua, ONFak pazienteak bere osotasunean hartzen dituzten arazoak bere organismo osoarekin erlazionaturik daudela dio. Odontologia tradizionalaren ezagutza zientifikoko berdina aplikatzen ditu, baina tratatu behar den pertsonarengan begirada organikoa eta osoa izaten du. Armonian lan egiten dute, izaki osoa, integrala eta ikuspuntu holistikoa batetik sendatzen du odontologia neurofokalak.

948 460 315
Kale Nagusia, 27
ETXARRI ARANATZ
info@etxarrihortzklintika.com

Metaldun amalgamak urtetan erabiliak izan dira, merke eta iraunkorrak zirelakoan. Etxarri Hortz Klinikak ateratze eta kentze seguruak egiten dituzte IAMT akademiak ezartzen dituen segurtasun protokoloak erabilita. Metal gabeko protesiak eta inplanteak, endodontzia, hortz estetika eta odonto-pediatria ere adituak dira. Estetika eta odontologia uzartzen ere jakin beharra dago, ez baitaude kontraesanean.

IORTIA HORTZ KLINIKA

20 urte baino gehiago Altsasun

Zure ahoa zaintzen adituak gara eta Sakanan, Altsasun zehazki 20 urte baino gehiago lanean egoteak bermea ematen digu.

948 46 76 03
Alzania, 3 | ALTSASU
948 60 48 04
Errotaldea, z/g | LEKUNBERRI
www.clinicaiortia.net

Aurpegi-masailetak kirurgia eta inplantologia

Aurpegi-masailetak kirurgia-zerbitzua dugu; hots, ahoko esku-hartze errazak, hala nola azkenaginak ateratzea, hortzak barne, hortzoi eta/edo hezur txertaketak, bai eta esku-hartze pixka bat konplexuagoak ere, hala nola hortz jatorrizko kisteen erresektzioa, hezur betetzeak, ehun-biopsiak... eta aho eremuko minbizi aurreko lesioen diagnosian eta prebentzioan saiatzen gara bereziki.

PADI zerbitzua eta odontopediatria

PADI edo HHZPI, haurren hortzak zaintzeko programari gaurde atxikirik. Nafarroako Gobernuak sustaturiko programa da. Arreta eta hortzetako tratamendu doakoak 6tik 15 urtera bitarteko haurrentzat.

Odontopediatria, hortzak eta masailezurak adingoztiarretan ongi garatzeaz eta garapen hori ongi kontrolatzeaz arduratzen den espezialitatea da, haurren bizi-



kalitatea hobetzeko, eta batez ere, etorkizuneko arazoei aurrea hartzeko. Hori bermatzeko espezialista daukagu kliniketan.

Kontsulta berria Lekunberrin 2015ean, kontsulta mustu genuen Lekunberrin. Hain zuzen, sartzeko erraza da, guztiz, eta azken tek-

nologiaz hornituta dago. Altsasuko klinikaren filosofia beraren arabera eta lan-talde berak babestuta sortu da.

kultura >>

Gerra erdian, mirariak

Gaur, 20:00etan, Irurtzango kultur etxean

Atikus teatrotik *Maravilla en el país de las miserias* antzezla- na ekarriko du gaur. Jon Muñoz Capellan eta Ane Sagues Abad gaztetxoak dira aktoreak. Gerra bete-betean hartutako toki batean bizi diren bi haurren larruan sartuko dira. Gerra giroan elkarrekin topo egiten dute. Ikarari eta bakardadeari aurre egiteko fantasia, jolasa, laguntasuna... dituzte. Horrela, haur eta inuzente izaten laguntzen dien mundu "miragarria" sortuko dute. Angel Saguesek idatzi du lana, Juan Rulforen *Macario* narrazioan, Lewis Carrollen *Alizia lurralde miresgarrian* eta bi gazte protagonistetan oinarrituta. Saguesek obrarekin adierazi nahi du "haur bakar baten bizi esperantza eta bere potentzialtasunak akabatzea basakeria" dela.

Katramila klasikoa, inauterietakoa eta musikala

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

2014 urtean sortuzen El Bucle konpainiaren hirugarren muntaia da *La discreta enamorada*. Erriberriko antzerki klasiko jaialdia itxi zuen joan den urtean. Konpainiak Lope de Vegaren Urrezko Mendeko katramila klasiko bat (1.604 urtekoa) XX. mendean kokatu du. Musikak 40ko hamarkadako Madrili egiten dio omenaldia, eta lotura argia ezartzen du jatorrizko testuaren eta Doña Francisquitaren artean. Bertsoa desagertu eta hitz lau bihurtu du, eta bukatzeko dantzaldi alai izanen da. Eszenaratzea modernoa eta oso musikala da.



Elkarrizketak pipertsuak dira, eta soinu-bandan bada zarzuela, tango, boleroa...

Emakume gazte, ausart eta maitemindu batek endredo distiratsu eta oso dibertigarria asmatuko du, amodio kontuetan dituen asmoetatik ongi ateratzeko. Feni-

sa, maitemindu diskretua, eta Belisa ama, alarguna, Lucindo gaztearen eta haren aita Bernardoren kale berean bizi dira. Fenisak ezkutuan maite duen gaztea da... Komedia handia da, emakume handi bat duena protagonista.

+www.guaixe.eus

Argazkiak egiten ikasteko

Bidlagun turismo elkarteak Argazkilaritza ikastaroa antolatzen du. Ikastaroak 6 klase teoriko-praktiko izanen ditu: apirilaren 26an eta maiatzaren 3an, 10ean eta 17an 17:00etatik 19:30era eta maiatzaren 24an eta 31n 17:00etatik 20:00etara. Utzугanen izanen dira saioak. Gainera, zehaztuko diren hiru egunetan hiruna orduko irteerak egiten dira, ikasitakoa praktikatzeko. Guztia borobiltzeko, azken saio batean, taldeko kide guztien lanak ikusi eta argazkiak aukeratu dira. Ikastaroan izena eman nahi duenak apirilaren 22ra arteko epea du, furbitarte@akanagarratzen.com e-postara idatziz. Bidelaguneko kideek 20 euro ordaindu behar dituzte eta besteek 60. Parte hartzeko ezin bestekoa da funtzio manualak dituen kamara digitala izatea. +www.guaixe.eus

bazterretik

Argiñe Berastegi Lizarraga

Artista da inork behar ez duena sortu eta horren nahia pizten duena

Bilboko Guggenheim Museoa otsailaren 26tik lastailaren 2ra ikusgai izango dugu Andy Warhol artista estatubatuarren "itzalak" deiturikoseria. Bilborahurbildu eta erausketa hau bisitatzeko gonbidapena luzatzen dizuet. Margolari, idazle, zinema-zuzenda-

ri eta Pop Art-aren aitzindari izan zen Andy Warhol. Marilyn Monroe, Mao Zedong, Elvis Presley eta beste pertsonaia ospetsu batzuen serigrafiazko erretratuak sortu eta behin eta berriz errepikatu zituen, irudi hauek ikono bilakatu zirelarik. Warholek berakesanada makinabat izatea eta makina batek bezala pintatzea gustatuko litzaiokeela. Kontsumo kultura, marka komertzialak eta produktuak izan ziren Pop Artearen gai nagusiak. Gerra-osteko garaiko kulturak bultzatu-

rik hainbat artista artea herriari hurbiltzeko nahiarekin edozein kontsumo-produktu edo eguneroko objektuak artelan izan zitekeela aldarrikatzen hasi ziren. Garai hartako pentsamolde horren isla Andy Warholen "Campbell" zopa lata ospetsua da. Agian, ideia honekin 1978an Andy Warhol, bere tailerreko itzal batekin abiatu zen irudi ezberdinak sortu eta mopa batekin margotutako mihiseetan serigrafiazko. Modu honetan, Guggenheimen ditugun



GUGGENHEIM BILBAO
otsailak 26 - urriak 2

102 koadroak sortu zituen. Warholek abstrakzioaren inguruan egin-

dako saiakera jasotzen da, beraz, museoa.

HARTU AURREA ETA EZ GALDU

UDA
BIRIBILA

ZIRKUITUAK EUROPA
KOSTALDEAK
IRLAK

8
%
Ko
deskontua

EGIN ERRESERBA ORAIN, ETA BIDAIATU MAIATZAREN 1 ETIK URRIAREN 31 RA

ETORRI GURE BULEGO
BERRIA EZAGUTZERA
ETA EGIN ZURE UDAKO
ERRESERBA

ORDUTEGIA:

9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Eskaintza honek sotasunaren barruan dauden hainbat estabimendu eta zirkuluetarako balio du (galde irazguz). Maiatzaren 01etik urriaren 31ra bidaiatzeko. Galteta HURRAK OGAN baldintzei buruz. Erreserba 55 €-dik hasita (ez da itzulki) egindako deposituak kenduko da gero, norako bakoitzaren erabaketa-baldintzen arabera. Ez daude berriz erreserba bakoitzeko 10 €. * Galteta ordaintzeko sukerei buruz eta sotasunaren baliotzei buruz, PLAZA MUGATOKI.

información y reservas
San Juan, 52, baxua, ALTSASU
948 041 002
halcon60@halcon-viajes.es

Halcon **bidaiak**

«Sakana maitia», jendaurrera

Gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean eta apirilaren 17an, igandean, 20:00etan Irurtzongo kultur etxean. Sarrerak han edo udaletxeetan eskuratu daitezke

ñigo Muñoak eta Manex Albirak sortutako kantua da *Sakana maitia*. Hartan ibarreko hainbat elezahar, mito eta Sakanako historiako pasarteak aipatzen dira: Gartzia Ximenez, Goñiko Teodosio, Amaia, Amalurra, 36ko estatu kolpea... Kantuari irudiak jarri eta bideoklipa egitea bururatu zitzaizen eta Oier Albizturerekin eta Asier Beltzarekin hasi ziren lanean. Grabazioak egiten urte bat eman dute



Sakana guztian barna.

Baina bideoklipa izan behar zuenak ordu bat pasako ikus-entzuzko proiektu bihurtu da. *Sakana maitiak* bideoklipa, dokumentala eta Hi Debei taldearen zuzeneko musika uztartzen ditu. Azken hori emanaldirako propio sortutako taldea da eta saioan lau kantu joko ditu, *Sakana maitia* barne. Dokumentala kultura eta historia ikuspuntutik osatuta dago eta kantuan aipatzen direnei testuigurua eman nahi die.

Bost sakandar Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Gaur, 18:30ean Altsasuko Itsasi euskaltegian, sarrera, doan

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan 14 eta 18 urte arteko bertsolariak neurtzen dira. 30. edizioan hamar bertsolari ariko dira eta haietatik bost Altsasuko bertso-eskolakoak dira: Ekain Alegre, Idoia Granizo, Aitziber Grados eta Aritz Goikoetxea altsasuarrak eta Amets Artieda etxarriarra. Bileitzar eta Bortzirietako zein Iruñeko Bertso Eskoletako hiru kide izanen dira.

Maider Ansa gai-jartzaileak gidatuko du saioa. Bertsolari gazteek aurreneko fasean honako lana egin beharko dute: gai oroko-



rrarekin bertso bat osatu, lau oinak emanda bertso bat osatu eta hitza emanda bertso bat osatu. Bigarren fasera lau bertsolari pasako dira eta egiteko hau izanen dute: binaka, gaia emanda, bina bertso zortziko txikian, banaka, lehen puntua emanda bertso bat

zortziko txikian eta binaka, gaia emanda, hiruna bertso koplatan. Saikapenena aurreneko biak gelditzen direnak Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalerako sailkatzea lortuko dute. Ereñozun izanen da, garagarriaren 4an. www.guaixe.eus

Alicate, maitasunari kantaz

Gaur, 22:30ean, Altsasuko Haritza tabernan

Insertkis tour-aren barruan, Iruñetik heldu da Alicate, la gramola del amor bikotea. Hauda, Estefania de Paz (aktorea eta abeslaria) eta Alice dos Santos (pianojolea). Euren ikuskizunak musutruk funtzionatzen du. Hau da, musu bat, abesti bat. Bikoteak frantziar kantuaren, rockabillyaren, milongaren, soularen, kaba-retaren eta pop doinuaren bertzio fresko eta dibertigarriak egiten ditu. Euren "iruindar kabareta" 2013tik ari dira dira eskaintzen.



Kanpaina Berezia. Aurreratu zure **Udarako Erreserbak**

15% dtua. EUROPAKO ZIRKUITUETAN **10% dtua. KOSTAL DEETAN** **8% dtua. IRLETAN**

"Hajontzat onena nahi dut"

VIAJES EROSKI BIDAIAK
Zubeztia, 1. Altsasu
948 564 335
Faxa: 948 468 986
v0874@viajeseroski.es

Erreserbak: apirilak 1etik eta maiatzak 31ra bitartean, maiatzak 1etik urriak 31ra arte bidaiatzeko.

"Jokina, orain, DESKONTURIK handienak, ESKAINTZARIK onenak, haurrak DOAN.."

www.escapareviajes.es
www.viajeseroski.es

EROSKI viajes
¿Sueltas? ¡Vuela!

Musika eskolako ikasleen audizioa

Gaur, 19:00etan, Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan

Irurtzongo musika eskolako ikasleak duela hilabete bat hasi ziren euren udaberriko audizioak eskaintzen. Orduetik, hainbat egunetan, Irurtzongo kultur etxean musika emanaldiak izan dira. Lehenik txirula eta biolontxelo ikasleak izan ziren. Gitarra klasikoarenak etorri zirengero. Ondoren klarineta, trikitixa, pianoa eta txirula eta akordeoia, bateria, txistu eta saxofoi ikasleen txanda iritsi zen. Audizioen egutegia gitarra elektrikoko ikasleen eta konboetan aritzen direnen emanaldiak itxiko du. Gaur, 19:00etatik aurrera Pikuxar euskal txokoan izanen dira.

«Paxkalin», bisoi mutur zuria

Eider Eibarren ilustrazioekin liburua argitaratu du Castillo Suarezek Paxkalin liburua (Elkar)

Estreinakoz, Castillo Suarezen haur literaturako protagonista bat ez da neskato kaxkagorri bat. Ezta pertsona bat ere. Animalia bat baizik, Paxkalin bisoi mutur txuria. Joan den ostegunean egindako aurkezpenan egileak aitortu zuen "oso ipuin nafarra" dela sortu duena. Eta horrela argudiatu zuen: "Protagonista bisoi mutur zuri bat da. Jendeak ez daki baina hori da Nafarroako animalia adierazgarrienetako bat. Nafarroan Arga eta Aragoi ibaietan, Erriberan dagoen animalia da". Suarezek argitu zuenez, bisoi mutur zuria "arriskuan dago. Arazo handiena da errepideetan autoek hil egiten dituzte, azpiko pasabiderik ez dutelako".



Argibide horiek eman ondoren idazle altsasuarrak jakinarazi zuen Paxkalin erreka bazterrean bizi dela. Arazo handia dauka: ondoko herrira zirkua etorri da eta hura ikusi nahi luke. Baina hara joateko errepidea pasa behar du. Suarezek azaldu zuenez, "bisoiak oso animalia otzanak, lasaiak dira. Ur

geldoak maite dituzte. Paxkalinen aitak ez dio errepidea bakarrik pasatzen uzten. Paxkalin penatua dago, errepidea pasa ezin duelako".

Bere pena gainean, kontakizunetan barna egiten duen ibilbidean hainbat animaliarekin egiten du topo. Bisoi mutur txurien beste arriskueta bat ageri da kontakizunetan, bisoi mutur beltzak, hau da, kanpotik ekarritako espeziea. Haietako bat ezagutuko du Paxkalinek. Eta bere ibili horretan beste hainbat animalia ere agertzen zaizkio Paxkalini. "Zoo bat da. Animalia haiekin dituen elkarrizketak dira liburuaren ardatza".

Tailer-aurkezpena

Hilaren 20an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Nafarroako Akordeoilarien Eguna hartuko du Altsasuk

Igandean eguerdian kalejiran ariko dira eta 12 bakarlari eta taldekoak jaialdi "anitza eta zoragarria" eskainiko dute 17:30etik aurrera

Igandean Altsasu Nafarroako akordeoilarien topaleku bihurtuko da. Akordeoilariak euren eguna antolatzen duten seigarren aldian da. 100 bat akordeoilari elkartuko dira Altsasun etzi. Bazkari-rako 200 bat aurreikusten ditu. Eguerdian alkateak harrera egiten die, eta horren ondoren herrian barna kalejiran ariko dira. 15:00etan bazkaldu eta 17:30ean jaialdia izanen da.

Akordeoilarien arratsaldeko jaialdiarekin soinu handiarekin entzutea ohikoak ez diren piezak joko dituzte, euskal musika herrikoia. Akordeoilariak bakarka eta



taldeka ariko dira, besteak beste: Victor Valencia, Salvador Mada-riaga, Jesus Mari Zubiri, Jaime Elizondo, Mikel Salaberri, Iñaki Gallues, Jorge Paris, Javier Lopez Jaso, Iñaki Dieguez, Joxan Goikoetxea eta Enrike Zelaia. Denek elkarrekin bost pieza joko dituzte, *Agur, Jaunak* doinuarekin des-peditzeko. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 83%	euria: 40%	euria: 20%	euria: 20%	euria: 40%	euria: 28%	euria: 00%
Min: 10 Max: 18	Min: 10 Max: 19	Min: 9 Max: 15	Min: 5 Max: 17	Min: 10 Max: 16	Min: 8 Max: 16	Min: 7 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	19	2.5	44.4
Etxarri A.	18.6	1.1	41.4
Altsasu	17.5	2.5	32.3
Aralar	9.1	-2.49	35.5
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
22	30	6	13

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

APIRIBILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea: 2 sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea: 2 sarrera.

>> 11 galdera

Aitor Irigoien eta Juan Manuel Galartza

Benignoren lagunak

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



Eskola agendak

Irakasle koadernoak

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Udazkenean utzi gintuen Benignok eta zerbait egitea pentsatu zenuten?

Aitor. Benigno beti jendea laguntzeko prest zegoen. Berak omenalditxo bat merezi zuen. Familiarekin hitz egin genuen eta egoki ikusi genuen omenaldi txiki asko egin beharrean dena egun batean zentralizatzea.

Juan Manuel. Merezi zuela pentsatu genuen. Eta hala ere ez dugu sekula ahaztuko. Egin beharra zegoen.

2. Omenaldi handi bat. Prestaketan herri askotako jendea elkartu zarete, ezta?

A. Gehienbat urdindarrak eta olaztiarrak. Baita altsasuar batzuk ere. Inguru horretan ibili da gehienbat Benigno azken urteetan. Nahiz eta Sakana guztian ibili, lan talde handiena olaztiarrek eta urdindarrek osatu dute.

3. Eta zertan ibiltzen zen urdindar eta olaztiar talde hori?

A. Betikoan, bazkariak prestatzen.

JM. Herri bazkari bat non, han zegoen Benigno. Eta Sakana guztiak Benignoren atzetik segi! Benigno prest denetarako!

4. Hura itzain, aurrean, eta zuek gudiari bultzaka?

JM. Benignok esaten zuena, guk belarria jaitsi eta kitto. Aurrera!

5. Omenaldia egin daiteke, baina zergatik auzolanean antolatuta?

A. Azken finean, Benignoren lan egiteko modua beti hori zen: auzolanean, ahalik eta herritarrena, jendearekin lan egiteko, ahalik eta

zabalena. Bere filosofia segituz, auzolanean egin behar genuela pentsatu genuen.

6. Auzolanean zenbat jende egonen zarete parte hartzen?

A. Batzordeak egin ditugu eta astelehenetako bileretan batzorde bakoitzeko bat edo bi elkartzeko gara. Lan taldeak handiagoak dira.

JM. Ehun pertsona edo gehiago ariko gara lanean bihar. Sakanako hainbat herritatik etorriko da jendea lanera.

7. Herri batean auzolana egitea kostatzen denarekin, eta zuek 100 pertsona elkartu dituzue!

A. Merezi zuelako.

JM. Berak horrenbesteko jenderen lana edo gehiago egiten zuen!

8. Auzolan hori bihar izanen da. Zer prestatu duzue?

A. Auzolan bat izatea nahi dugu, baina festa egun bat ere. Festa guztiak bezala, etxajurekin hasiko gara. Txistulariak dieran arituko dira (10:00etan). Ardoa eta banatuko da, festetan bezala. Plazan ere hamaiketako eskainiko dugu (11:00etan). Txirrindularien ohorezko buelta izanen da (11:30). Kontuan izanda Benigno gaztetan txirrindularia izan zela, Burunda Txirrindulari Taldeak parte hartu nahi izan du. Plazan, Benignok asko estimatzen zuen txokotan, plaka txiki bat jarriko da (12:00etan). Musika egonen da egun guztian.

JM. 600 pertsonarendako bazkari erraldoi hori izanen da gero frontoian (13:30ean haurrak eta

14:30ean helduak). Bazkaldu ondoren Urdiain Kantaitan izanen da. Haurrendako puzgarriak. Benignok beti kantu paperak zituen eta kantu liburu batzuk prestatu ditugu horregatik. Kalejiran plazara joanen gara (18:00etan). Omenaldia frontoian izanen da (20:30ean). Bokata-jatea (22:00etan) eta Dentera, Garabatos eta Txino kudeiro taldeen kontzertuak plazan. Dena nahiko lotuta dago. Etorriko den jendeak, hitza emana du. Guk ere ospatuko dugu.

A. Bueltarako Jaibusu egonen da: 3:00etan eta 6:00etan.

9. Hasiera batean 500endako bazkaria zen, baina 600 esan berri duzue. Pozik?

JM. Bai, eta toki gehiago ez dugulako, bestela, berak esaten zuen moduan: mila! Mila pertsonarendako. Milarendako makina bat bazkari egin zituen!

10. Omenaldian ikus-entzunezko bat izanen da, ezta?

A. Sorpresa izatea nahi dugu. Eta, bai, montajea egitea kosta zaigu.

JM. Gauza nahiko polita atera behar da.

11. Benigno, hitz gutxitan, nola gogoratzen duzue?

JM. Nik zer esan behar dut. Makina bat juerga utzi ditugu. Nibelaz aparte. Hori hemendik aurrera bukatu da: berarekin eguna eta tarte onak pasatzea.

A. Auzolanean. Gora herria! Mexikarrak entzuten. Berak askotan esaten zuen: ez gara onenak izanen, baina txarrenak ezta ere.